

## "Eskola berriak jarraitu nahi du izaten inguruarekiko zubi"

Miguel Altuna lanbide heziketa eskolak egoitza berria estreinatuko du astelehenean, 600 ikaslerekin / 9

Josune Irazabal, Bergarako Miguel Altunako zuzendaria, eskola aurrean. ENEKO AZKARATE



**ANDRAMAIXAK ARETXABALETAN**  
**ETA LEINTZ GATZAGAN / 18**

**Marixol Iparragirre Soto del Realgo espetxera eroan dute, Frantzian kartzela zigorra bete ostean / 4**

### SINADURAK

	MARIJE UGALDE / 28
	ANARTZ AGIRRE / 8
	MAIALEN SANTOS / 35
	INAXIO GARRO / 16
	IDOIA ETXEBERRIA / 48



Baltistan Fundazioa: alpinismoak loturiko elkarlaguntza

Matias Cordero hezitzaileari elkarrizketa

## ATLETISMOA KALEAN

Arrasateko Biteri plazan egingo dute ikuskizuna, zapatuan, Arrasate Atletiko Taldearen 75. urteurreneko ospakizunen barruan / 36



Malen Ruiz de Azua, Eneko Carrascal, Iñigo Uribarren eta Istar Dapena.

XABIER URZELAI

**kon2natu**  
erreflexuen aurkako graduatuak  
+ eguzkitako graduatuak

**99€**

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**  
Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Bisitari talde bat Bergaran, abuztuan. GOIENA

## Datu positiboak utzi ditu turismoak Debagoienez

Bailarako herrietan jende ugari ibili da udako hilabeteetan eta turismo bulegoko ordezkariak "gustura" agertu dira eskuratutako emaitzekin. Ohi den moduan, Oñatik erakarri ditu bisitari gehien, eta, iazko datuekin alderatuta, %14ko hazkundea izan du

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak jakinarazi duenez, 24.971 bisitari jaso ditu herriak aurtengo ekaina eta abuztua bitartean; iazko datuekin alderatuz gero, %14 gehiago, hain zuzen ere.

Bulegoetaraino 16.047 pertsona gerturatu dira eta Arrikrutz Oñatiko Kobetara, 6.229. Txokolatexia izan da aurtengo hazkunde nabarmenena izan duen turismo-gunea, %46ko igoerarekin.

Ekintza ugari eta askotarikoak prestatu dituzte aurtengo udan bisitariari begira, eta turistek ere hala hartu dituzte: Bisita gidatuetan jendeak "interesez" azaldu du eta "parte hartze prest" agertu da. Bestalde, Araotz bailaran egindako Geoibilbidea eta espeleotxiki eta espeleo bisitekin ere harrera "oso ona" izan dute, eta bete egin dira. Oñatiko Turismo Bulegoko arte-historiako bisitetan, berriz, 2.877 turista izan dira.

**Turismo eredu ugari**

Oñati bisitatu dutenen artean, %53k hotelean hartu dute ostua, %33 autokarabanan etorri dira, %7 nekazaritza turismoan eta %7k aterpetxe edota apartamentuetan hartu dute lo-lekua. Hala, Oñatiko karabana guneak, iaztik hona, bikoiztu egin du erabiltzaile kopurua.

Jatorriari erreparatuta, inguruko probintzietatik bisitari gehien Bizkaia (%13) eta Gipuzkoatik (%15) hurbildu dira, Nafarroatik %4 eta Arabatik %3.

**Gatzagan, "pozik"**

Leintz Gatzagak 710 bisitari jaso ditu udako hilabeteetan, eta, Gatz Museoko arduradunek azaldu dutenez, uztaila izan da

**IAZTIK HONA, %46 HANDITU DA OÑATIKO TXOKOLATEIXIA BISITATU DUTEN PERTSONEN KOPURUA**

hilabeterik jendetsuena. Iazko datuekin alderatuta, Gatzagan ere hazkundea izan du turismoak, eta, museotik diotenez, "pozik" daude lortutako emaitzekin.

**Bergaran ere, "gustura"**

Iazko datuekin alderatuz gero bisitari kopuruak zertxobait behera egin duen arren (%2), Turismo Bulegoko ordezkariak balorazio positiboa egin dute, aurreko urteetako bisitari kopurua, gutxi gorabehera, mantendu egin delako.

Bisitari motari dagokionez, talde gutxiago ibili direla azaldu dute, baina haien kontura etorri direnak ugari izan direla. Orokorrean, Euskal Herriatik iritsitako bisitariak ibili dira Bergaran, egun-pasa etorritakoak. Espainiatik ere bisitari ugari etorri direla azaldu dute; batez ere, Madrildik. Hori soilik ez, urrunagotik etorritakoak ere izan dituztela kontatu dute, hala nola Australiatik eta Arabiar Emirerri Batuetatik etorritakoak.

## Lapurretak nabarmen egin dute gora etxeetan oraingo abuztuan

Iaz baino 15 lapurreta kasu gehiago zenbatu dira eta Aretxabaleta eta Eskoriatza izan dira kaltetuenak

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Ertzaintzak jakinarazi duenez, hainbat lapurreta kasu gertatu dira abuztuan Debagoieneko herrietan, eta, guztira, hamasei kasuren berri izan dute, etxebizitzetako lapurretekin dagokienez. Iazko datuekin alderatuta, "nabarmen" egin dute gora lapurretek, 2018an kasu bakarra zenbatu baitzen bailara osoan.

Herriz herriko datuak aztertuz gero, Aretxabaletan lapurtu dute gehien; zazpi etxetan, guztira. Eskoriatzan lau lapurreta zenbatu dituzte eta Antzuolan, hiru. Arrasaten eta Oñatin kasu bana erregistratu dute, eta gainerako herrietan Ertzaintzak ez du sakalaketarik izan.

**Gutxi, baina trebeak**

Lapurrei dagokienez, bizpahiru pertsonak osatutako eta halako kasuetan espezializatutako tal-

dea izan daitekeela uste du Ertzaintzak, sarrailak behartzen oso trebeak.

Mugikortasun handiko taldea dela azaldu dute, eta, hirietan ibiltzen diren arren, AP-1 ondoan izateak eta Deskargako errepede berriak ere bailarara erakarri dituela uste dute, lapurreta egin eta ihesaldia erraz egin dezaketelako.

**Sarraila manipulatu**

Orokorrean, sarrailak manipulatu lortu dute etxebizitzetan sartzea lapurrek, gako bat erabiltzaile, edota indarrez bortxatuta. Ertzaintzatik diote ostu aurretik guneak aztertu eta atearen eta markoaren artean silikona edo lekeda hariaren aztarnak jartzen dituztela. Hala, haria apurtu gabe baldin bada, etxe horretan mugimendurik ez dagoela ikusten dute.

## Ulmak 50 milioiko zor kotizatua jaulki du, 12 urterako epean

Iaz irailean ekin zion Ulmak errenta finkoko merkatu alternatiboaren (MARF) bitartez zor kotizatuaren jaulkipenari, emititzeari, modu horretan, finantziario iturriak dibertsifikatuz.

Oraingoan ere, bide bera jarraituz eta hazkunde plana finantzatzeko asmotan, 50 milioi euroko zor kotizatua jaulki du, 12 urterako epean. Hala, 100

milioi euroko programa baten barruan zor kotizatua jaulki duen lehen industria-talde kooperatiboa da Ulma.

Halako finantziario iturriak ohikoak dira kapital sozietateetan; ez, ordea, talde kooperatiboetan. Inbertsiogileek izenpetu dute erabat eragiketa. Ulma taldeko zuzendari nagusi Iñaki Gabilondoren esanetan: "Bezeroengana iristeko eta posizionamendua sendotzeko sekulako aukera izango da gure finantzaketa bide berri hau".

## Arantzazuko Amaren eguna ospatuko dute astelehenean

Erljiotasunak eta ospakizunak bat egingo dute, beste behin, astelehenean Oñatin. Hain zuzen, Gipuzkoako zaindaria Arantzazuko Amaren eguna ospatuko dute, urtero bezala, hilaren 9an, Arantzazun bertan.

Ohi den moduan, goizean goizetik hartuko dute erromesek Arantzazurako bidea; horietako askok, oinez. Ordezkaritza politi-

koak, bestalde, eguerdiko meza nagusiaren aurretik heltzea espero da; bertan izango diren artean, Oñatiko alkatea, udalbatzako hainbat kide, Gipuzkoako ahaldu nagusia eta aldundiko ordezkariak.

Eguerdian, 12:00etan, meza emango du gipuzkoako gotzain nagusiak, Jose Ignazio Munillak. Euskal presoen senideen eta beste hainbat herritarren aldarriak entzutea ere espero da aurtengoan, presoen etxeratzea eskatuz.



Konfiantzaren pedagogian oinarritutako liburuen aurkezpena. GOIENA.

## 'Ametsak betetzeko daudelako!' liburua aurkeztu du Arizmendik

Ikastola-eredua garatzeko konpromisoan, konfiantzaren pedagogiaren teoria batzen du Arizmendik lanean

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

2009an abiatu zuen Arizmendi Ikastolak Leintz Bailaran ikastola-eredua garatzeko bidea, bere egitasmo pedagogiko propioa eraikitzen hasita, eta, bide horretan, konfiantzaren pedagogian eman zituen lehen pausoak. Eredu horrek badu helburu finiko bat: bizitzako egoerei erantzuten dakien pertsona kooperatiboa eta euskalduna garatzea.

Hala, Gaztelupe gunean aurkeztu zuten liburua, martitzenean, eta bertan izan ziren Arizmendi Ikastolako zuzendari orokor Iñaki Etxezarreta, Berri-

kuntza Pedagogiaren zuzendari Amaia Antero eta Prototipoaren Garapenerako arduradun Unai Legarda eta Jaione Uriarte.

### Teoria praktikan jarriz

Behin oinarri pedagogiko berriak finkatuta eta aurrez Haur Hezkuntzan landu moduan, 2020-2021eko ikasturtean Lehen Hezkuntzan eta DBHn ezartzeko asmoa dute, eta horretan ari dira dagoeneko, material didaktikoa prestatzen. Arizmendiren proiektua den arren, konfiantzaren pedagogian bidelagun dituzte beste ikastola batzuk.

## Langabezia-tasak gora egin du abuztuan, eta %7,76an kokatu da

Uneotan, 2.419 lagun daude lan gabe Debagoiengan, iazko data berean baino %0,69 gutxiago

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Lan gabe dauden kopuruak gora egin du abuztuan, une honetan zifra %7,76 era igota. Hala, uztailean baino 108 pertsona gehiago egon dira langabezia hilabete horretan. Aurreko urteetako abuztuko datuekin alderatuz gero, baina, zifra positiboak dira: egoerak hobera egin du iaztik hona, eta are gehiago 2017tik hona.

Herriei dagokienez, Antzuolan eta Elgetan mantendu egin da langabe kopurua, eta Leintz Gatzagan zertxobait egin du

behera. Gainerako herrietan, ordea, gora egin du langabezia dauden pertsonen kopuruak. Debagoieneko datuak, era berean, bat datoz Hego Euskal Herriko joerarekin. Izan ere, lau lurraldeetan egin du gora langabe kopuruak abuztuan; baina, kasu horretan ere, iaz baino gutxiago dira.

Eusko Jaurlaritzak adierazi du urtez urteko datuak positiboak direla, eta gogorarazi du jarduerak behera egiten duela abuztuan eta ez dela, beraz, hilabete ona enpleguarentzat.

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARDEN IZENAK		ORDUAK	DATAK
FMEM00320H	3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKOIZPENERAKO DISEINUA	15	ZEHATZU GABE
FMEM00550H	HIDRAULIKA	50	ZEHATZU GABE
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. <b>M-COSMOS</b>	30	ZEHATZU GABE
UF0876	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOK. <b>PLANOEN IRAKURKETA</b>	60	2019/09/23-2019/10/24
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MIKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. <b>KONBENTZIONALA</b>	80	2019/10/28-2019/12/11
FMEH00530H	FRESAGAILUA CNC HEINDENHAIN PROGRAMAZIOA	40	2019/09/30-2019/10/21
UF0453	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTIKOPEN GRAFIKOA. <b>SOLID EDGE MODELATU ETA PLANOAK</b>	40	2019/10/14-2019/11/04
FMEH00710H	SOLID EDGE II. <b>MULTZOAK</b>	30	2019/11/18-2019/12/03
FMEM00120H	CAM POWERMILL	40	2020/01/13-2020/02/03
FMEC013P0	SOLDADURA MAH	40	2019/11/11-2019/12/03
UF0883	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2019/11/04-2019/11/19
UF0879	PIEZAK TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO <b>CNC</b> PROGRAMAK EGITEA	80	2020/02/03-2020/03/18
FMEM00400H	NEUMATIKA	40	ZEHATZU GABE
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEL00020H	MEKANIKOENTZAT ELEKTRIZITATEA	40	ZEHATZU GABE
ELEE003P0	ELEKTRIZITATEAREN ALDERDI OINARRIZKOAK	60	2019/09/23-2019/10/24
ELEE0109	BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOK MUNTATZEA ETA MANTETZEA	80	2019/10/28-2019/12/11
ELEI00050H	S7 PROFIBUS	20	ZEHATZU GABE
ELEI00040H	S7 ETHERNET ETA PROFINET	30	ZEHATZU GABE
FMEM006P0	ROBOTIKA OINARRIAK	50	2019/11/25-2019/12/19
ELEE018P0	AUTOMATA PROGRAMAGARIAK	60	2019/09/30-2019/10/31
ENAE00050H	EGUZKO-ENERGIA: INSTALAZIO FOTOBOLTAIKOEN OINARRIAK	40	ZEHATZU GABE
ELEG00010H	ARLINDO	45	ZEHATZU GABE
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0343	SOLDATA ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA BILKETA	90	2019/10/07-2019/11/26
UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOK <b>WORD</b>	30	2019/11/11-2019/11/26
UF0321	KALKULU-ORRIEN APLIKAZIO INFORMATIKOK. <b>EXCEL</b>	50	ZEHATZU GABE
BESTE BATZUK			
COML003P0	ORGA. JASOTZAILAK ETA BERE ZAMA	8	2019/09/23-2019/09/25
GAITASUN ZIURTAGIRIAK - LANGABETUENTZAKO SOILIK			
FMEH0109	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	540	2019/10/07-2020/05/07
FMEED108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	400	2019/10/28-2020/03/31



# Soto del Realgo espetxean dago Marixol Iparragirre

Eskoriatzarra Espainiara estraditatu dute asteen, eta, Auzitegi Nazionaletik pasa ostean, Soto del Realgo espetxera eraman dute; egoera salatzeko, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Eskoriatzako plazan, 'Estradiziorik ez, Marixol etxera!' lelopean

**E.A./J.B.** ESKORIATZA

Eguazten arratsaldean eraman zuten Auzitegi Nazionalera Marixol Iparragirre euskal preso eskoriatzarra, eta bere kontrako karguak zeintzuk diren jakinarazi ostean espetxeratu zuten.

Egoera salatzeko, eguazten ilunkean elkarretaratze jendetsua egin zuten Eskoriatzako plazan, *Estradiziorik ez, Marixol etxera!* lelopean. Iparragirreren senitartekoen arabera, bizi duten ezjakintasun egoera da okerrera. "Familiarteko batzuek martitzenean hitz egin zuten berarekin. Arazoak izan ziren telefonoarekin; kartzela arauak oso zorrotzak dira. Egoera oso



Eguazten ilunkerako elkarretaratzea. JOKIN BEREZIARTUA

kezkarria da guretzat, urduri gaude. Frantziako kartzeletan egoera ez da ona, baina Espainian are okerragoa da. Frantzian kondena beteta dauka eta kalean egon beharko luke; 15 urte daramatza barruan eta familiak ez dakigu oraindik zer gertatuko den", adierazi du anaiak, Santi Iparragirrek.

## 2004an atxilotu zuten

Marixol Iparragirre 2004an atxilotu zuten, Frantzian, ETArekin lotuta, eta hogei urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Abuztuaren 27an amaitu zitzaion zigor hori, baina Eskoriatzako Presoen Aldeko Plataformak eta Donostiako Antiguako Kalera Kalera dinamikak oraindik preso dagoela salatu dute.

Era berean, gaineratu dute "eragile garrantzitsua" izan dela Iparragirre ETAk borroka armatua utzi zuenetik. Hala, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) bozeramaile eta ordezkari izan dela adierazi dute eta baita iazko maiatzean ETA erakundeak bere desegitearen berri ematen zuten agiriari aho-tsa jarri ziola ere.

## Izaro Elorza: "Gure aurkako salaketaren berririk ez daukagu"

Vox alderdiak salaketa aurkeztu zuen EH Bilduren eta Xabier Lertxundi eta Izaro Elorza Hernaniko eta Oñatiko alkateen aurka, Jose Jabier Zabaleta Baldo eta Xabier Ugarte preso ohiei Hernanin eta Oñatin uztaile bukaeran egindako harrera ekitaldien harira.

Alderdi ultraeskuindarrak duela aste batzuk jakinarazita koaren arabera, Espainiako Auzitegi Nazionaleko 4. Instrukzio aretoak tramiterako onartu du salaketa. Hala ere, bi alkateek diote ez daukatela salaketa horren berririk. "Prensan irakurritakoa bakarrik dakigu, gaurgaurkoz ez dugu jakinarazpen ofizialik jaso. Ez dakigu zer den salatu dutena, ez tramiterako zer onartu duten zehazki, ezta onartutako hori epaituko duten ere. Hernaniko alkatearekin harremanetan nago orduetik eta ez berak ez nik ez dugu oraindik gai horrekiko ezer ofizialik jaso", azpimarratu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak.

# mondragonLingua

YOUR BEST training

*apunta zaituz!*

- Metodo pertsonalizatua Lingua Campusarekin.
- Aurrez aurreko eta sareko eskolak.
- Azterketen prestaketa.

OÑATI

Montxon kalea 7.

943 71 60 00 • [mloinati@mondragonlingua.com](mailto:mloinati@mondragonlingua.com)

ARRASATE

Araba etorbidea 4.

943 71 20 55 • [mlarrasate@mondragonlingua.com](mailto:mlarrasate@mondragonlingua.com)

lanerako gertu!

# Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020



## Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

## Matrikulazioa zabalik



**Eneko Azurmendi** ARRASATE

43 zenbaki kaleratu ditu orain arte *Ttap* aldizkari digital multimedialak, eta, guztira, 85 bat elkarrizketa. Azken hauez gain, orotariko edukiak eskaintzen ditu aldizkari *Ttap*-ek, eta 65 bat lagunen kolaborazioarekin osatzen dute asteroko zenbakia: elkarrizketatzaileak, zutabegileak, moda adituak, zinema adituak, argazkilariak, ilustratzaileak, eta abar. "Kolaboratzaileek pisu handia dute *Ttap*-en, aldizkariaren zati handiena kolaborazio bidez egiten dugu. Kolaboratzaile sorta zabal eta plurala daukagu. Esparru eta arlo oso desberdinetako kolaboratzaileak dira, eskarmentu handikoa bakoitza bere arloan, eta oso pozik gaude", azaldu du Monika Belastegik, *Ttap* aldizkari zuzendariak.

Elkarrizketak dira aldizkariaren zutabe nagusia. "Elkarrizketatuak aukeratzeko orduan profil oso ezberdineko pertsonaia ezagunak ekarri ditugu *Ttap*-era: kultura arlokoak, kirolariak, ekonomialariak, zientzialariak, osasun arlokoak, telebista aurkezleak, bertsolariak...".

Belastegik nabarmendu duenez, aldizkari "erabat multimedia" da, eta edukiak hainbat formatu eta euskarritan lantzen ditu, erabiltzaileari "esperientzia atsegin eta interesgarria" eskaintzeko. "Testuekin batera, bideoak, audioak eta grafiko interaktiboak jasotzen ditu eta

horregatik esaten dugu beti *Ttap* irakurri ez ezik, ukitu, ikusi eta entzun ere egin daitekeela".

Edukiari dagokionez, gertuko gaiak lantzen ditu aldizkari digital multimedialak, "gaurkotasunezkoak, baina ez ezinbestean egunerokoari lotuak, modu erraz eta azkarrean kontsumitzeko moduan". Zuzendariaren esanetan, batez ere, inguru urbanoan edota garraio publikoan kontsumitzeko pentsatutako aldizkaria da, telefonoa aldean hemendik hara dabiltzan horientzat. "Horregatik, ordu laurden batean irakurtzeko moduko aldizkaria da. Hala ere, edukietan sakondu nahi duenak beti izango ditu mimo handiz landutako audio eta bideo elkarrizketa luzeagoak eskura, azken produktua kalitate handikoa izan dadin".

#### Berritzailea eta freskoa

Aldizkari Digital Multimedialak SL enpresa da *Ttap* argitaratzeaz arduratzen dena, eta honako hauek dira bazkideak: Durangaldeko Anboto, Goiena, Zumaiako Baileike, Iruñerriko Euskalerrria Irratia, euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom bateragunea eta Kataluniako Esguard –azken hau hartu dute erreferentzia modura *Ttap* aldizkaria sortzeko–.

Sorrerako helburuetako bat euskarazko edukien kontsumoan beste euskarri batzuk probatzea zen. "Kasu honetan, mugikorrean edo tabletan irakurle-ikusle-en-



Erabiltzaile bat, bere mugikorrean *Ttap* aldizkaria irekita duela. IMANOL SORIANO

# 'Ttap' familiaren urtebetetzea

2018ko irailaren 21ean lehen zenbakia kaleratu zenetik, urtebeteko ibilbidea egin du jada egungo kontsumo eredura egokitzen den euskarazko 'Ttap' aldizkari digital multimedialak, eta urtebete honetan, "proiektua fintzen, sendotzen eta hazten joan da"



**AITZOL ATUTXA**  
KOLABORATZAILEA

**"Ttap'-ek ni neu ezagutzen lagundu dit"**

"*Ttap* euskararen eta euskaldunon eboluzioaren parte da, eta hari esker, etorkizuna bermatzen ere ari gara. Nire kasuan, esperientzia berria da, lehendabizikoa. Baliteke *Ttap*-i esker norbaitek ni ezagutu izana, baina *Ttap*-ek ni neu ezagutzen ere lagundu dit".



**AMAIA URIBE**  
KOLABORATZAILEA

**"Etxetik gertuago sentitzen lagundu dit"**

"Euskal Herritik 5.700 kilometrorra, *Ttap*-ek etxetik gertuago sentitzen laguntzen dit. Irakurle gisa, euskal gaietan modu fresko eta modernoan murgiltzeko aukera ematen didalako, eta kolaboratzaile moduan, hemengo gaiak beste era batera kontatzeko aukera".



**IDOIA TORREGARAI**  
KOLABORATZAILEA

**"Beti izaten dut klik batera 'Ttap'"**

"*Ttap* euskarazko eduki interesgarriak jasotzeko modu berritzailea da, ukitu, ikusi eta entzun daitekeena. Irrikaz egoten naiz, ostiralero, aldizkari bideoekin, audioekin eta bestelako edukiak gozatzeko. Kanean, etxean zein lanean, beti izaten dut klik batera *Ttap*".



**JULEN TELLERIA**  
ELKARRIZKETATUA

**"Erraza, eroso eta bizkorra da 'Ttap'"**

"Gaur egun, unibertso osoa eraman dezakegu patrikan sartuta, gure segapotoan. Euskaldunon unibertsoa, ordea, uharte txiki bat da Interneten ozeanoan. Txikia, eta emankorra. Uharte horretan, batera eta bestera ibiltzea da niretzako *Ttap*; erraz, eroso eta bizkor".



**KIKE AMONARRIZ**  
ELKARRIZKETATUA

**"Zorionak, 'Ttap'! Segi ttipi-ttapa, ttipi-ttap!"**

"Gutxitan erabili ohi nituen aurikularrak, musika edo irratia entzuteko, egunero egin ohi dudana ibilaldian, bidera *Ttap* azaldu zitzaidan arte. Geroztik, *Ttap*-ek elkarrizketatutako asko izan ditut bidelagun. Eta luzaro hala jarraitzea espero dut. Zorionak, *Ttap*! Segi ttipi-ttapa, ttipi-ttap".



**SARA GANDARA**  
KOLABORATZAILEA

**"Urte benetan oparoa izan da"**

"*Ttap*-en kolaboratzea oso esperientzia aberasgarria izan da, zentzu guztietan. Nire bi pasioak, idaztea eta pertsonekin hitz egitea, uztartzeko abagunea eman dit eta, horri esker, jende oso interesgarria ezagutu dut: elkarrizketatuak eta lankideak. Urte benetan oparoa izan da".

tzuleek erraz kontsumitu ahal izateko kalitatezko edukiak eskaintzea. Hau da, autobusean, etxean, trenean edo beste edozein lekutan euskaraz kontsumitzea", adierazi du Jone Guenetxeak, Aldizkari Digital Multimediak enpresako presidentea. Goienako zuzendari Iban Arantzabalek ere argi du euskarri horren aldeko apustua egin beharrekoa zela. "Goienako lantaldeak zerbait badu da aurrera egiteko grina. Hor kokatzen dut *Ttap*. Abuztu honetan bertan *Goiena.eus* webgunera sartu direnen %70,7 eskuko telefonotik sartu dira. *Ttap*-ekin kontsumo-molde hori esperimentatu dugu, ikus-entzunezko askorekin, testuekin eta audioekin lagunduta. Urtebetean asko ikasi dugu eta aldizkari digital multimediarekin merkatuan kokatu gara, euskaraz eta berritzaile, *Arrasate Press*-ek orain dela 31 urte egin zuen moduan", dio.

#### Gazteengana heldu guran

Arantzabalen esanetan, "kezka mundiala" zen eta da zelan heldu gazteengana. "Gazte eta helduagoek eskuko telefonoan 3 ordu eta 50 minutu pasatzen ditugu egunero, gutxi-asko. Nomofobiko ere bihurtu gara eta ezin gara etxetik atera telefono barik. Gure kezkak, beraz, batzen ditu gazteak eta telefono kontsumoa". Belastegik ere aitortu du kontsumo ereduak aldatu egin direla, eta horietara egokitzeko helburuarekin sortu dutela aldizkari digitala. "Orain arte ez geneukan *Ttap* bezalako aldizkaririk euskaraz, eta euskarak behar du egon eskuko telefonoetan eta tabletetan. Kontuan izanda, gainera, gazteak bai ala bai gailu hauetan daudela. Bereiki, gazteak ditugu aintzat produktu honekin, baina gaztearen definizio malguarekin".

#### Helburuak betetzen

Guenetxea pozik azaldu da urtebete honetan eman dituzten aurrerapausoekin. "*Ttap*-en sorreran aitortu genuen esperimentaziorako espazio bat zela, eta horrela izan da. Esperientzia horretatik abiatuta, proiektua fintzen, sendotzen eta hazten joan da. Kalitateari eustea lortu dugu, eta baita kolaboratzaile sarea zabaltzea ere. Hala ere, gure lanarekin zorrotzak izan behar dugu, eta geroago eta ikus-entzule gehiago izateak erronka izaten jarraitzen du. Mugikorren erabilera hazten doan heinean, geroago eta kontsumitzaile potentzial gehiagorengana heldu behar dugu. Euskarria geroz eta gehiago ezagutzen ari gara eta aukera berriak sortzen ari dira. Formatu honek joko gehiago eman dezake oraindik".

Arantzabalen ustez ere, helburuak betetzen ari dira. "Komunikabide berri bat, egiteko modu berri bat, sakontasuna eta arintasuna batera ematen dituen aldizkari bat, moda orriak eta elkarrizketa luze bat batera, autobus bidaia baterako edo metrorako hedabide eroso... Produktu freskoa da, euskara hutsean, doakoa, modernoa, berritzailea... Bai, helburuak betetzen ari gara".

#### Esperimentatzen jarraitu

Aurrera begira, esperimentatzen jarraitzea ezinbestekoa izango da, Guenetxearen esanetan. "Deskubritzea zer egin dezakegun. Eduki mota berriak asmatu gura ditugu, formatu honek aukera hori ematen du eta. Bestalde, oraindik ere askoz ere jende gehiagorengana heltzeko aukera dugula jakinda, zabal-kundean lan egitea da beste erronketako bat".

**43 ZENBAKI  
KALERATU DITU ORAIN  
ARTE 'TTAP'-EK, ETA,  
GUZTIRA, 85  
ELKARRIZKETA**

**'HUMANITY AT MUSIC'  
EKIMENAREN  
GAINEN ZENBAKI  
BEREZIA KALERATUKO  
DUTE GAUR**

Aldizkariko zuzendariak ere aukera berriak aztertzearen aldeko apustua nabarmendu du. "Euskarri berritzailea den aldetik, gu ere ikasten ari gara eta esku artean dugun erronka handienetako bat da euskarriak ematen dizkigun aukera berriak esploratzea eta haiei zukua ateratzen ikastea".

Arantzabalek dio seme-alaba bat izateko beste esperientzia metatu duela *Ttap*-eko lantaldeak. "Jende profesionala eta prestatua dugu eduki sorkuntzan,

diseinuan eta kudeaketan. Agian, gerturatzen ari da ordua segmentu konkretuagora jotzeko".

#### Zenbaki berezia gaur

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ohiko edizioez gain, zenbaki bereziak ere atera izan ditu aldizkari digitalak, Durangoko Azokaren, Martxoaren 8aren edota Korrikaren gainekoak, esaterako, eta gaur, egubakoitza, beste zenbaki berezi bat kalera-tuko du, *Humanity at Music* sinfonia kooperatiboaren gaine-

koa. Izan ere, irailaren 14an Gasteizko Buesa Arenan ekitaldi nagusia egingo du sinfonia kooperatiboak, eta, iragartzeaz gain, ezagutarazi eta hara joateko gonbita egiten zaio ikus-entzuleari. Bestalde, Paul Caballeroren iritzi ilustratua, argazki albuma, ekitaldi nagusiko egitaraua, dantza koreografikoak eta beste hainbat eduki ere jasoko ditu gaurko zenbaki bereziak, baita *Humanity at Music* liburuaren aurkezpena eta online erosteko aukera ere.

**Euskararekin  
Match!**

Egin gurekin bat

UDAL EUSKALTEGIAK

19/20 Matrikula epea zabalik

<b>BEDITA LARRAKOETXEA</b> UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta, 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus	<b>ARRASATEKO</b> UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza, 2. Tel.: 943 79 70 77 euskaltegi@arrasate.eus	<b>BERGARAKO</b> UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus	<b>LEINTZ</b> UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Arebobaleta Inbaurbaleta 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 aldizkaritza@udaleuskaltegia.eus
---	---	--	--

### 'Ttap' nola deskargatu

Aldizkaria eskuratzeko aplikazioa deskargatu behar da, doan, Apple Store edo Google Play bidez. Barikuro, zenbaki berriak, automatikoki, eskuragarri izango dituzu aplikazioan. Facebook, Twitter eta Instagram bidez ere deskarga daiteke.



ZABALIK

ANARTZ AGIRRE

## Euskal derbyez nazkatuta

"Ene Iñaki mikro aurrean hitz egitea da erraz. Akordatzen naiz Iñigoz, Yuriz eta igual San Josegaz. Hoiiek bai baina beste guztiak josiko ditut galderaz. Athleticen bai denak etxeko, zenbatak daki euskeraz?"

Amets Arzalluzek San Mames Barriaren kanpoaldean euskal derbiaren harira botatuko bertsoa da honako hau. Ez zaio arrazoirik falta Ametsi: Athleticen euskal herritarrak dira jokalarik guztiak, baina, gutxi gorabehera, erdiek edo gutxiagok jakingo dute euskaraz. Reala ere ez pentsa harrotzeko moduan dagoenik. Urtetik urtera atzerritar gehiago ekartzen ari da eta, ondorioz, euskaldunen kopuruak ere nabarmen egin du behera. Egia esan, aspertuta nago probintzianismo kutsuko lehia antzuekin. Guk denak etxekoak, gu euskaldunagoak gara, guk titulu gehiago, guk harrobi hobia dugu... A-8aren bi aldeetako miseriak.

### GUK DENAK ETXEKOAK, GU EUSKALDUNAGOAK GARA, GUK TITULU GEHIAGO...

Reale Seguros Stadiumen jokatu den hurrengo euskal derbian ere ziur berriz errepikatuko direla oraingo pike eta eztabaida antzuak.

Futbolarekin alderatuz gurago dut txirrindularitzan sortzen den giroa. Sanoagoa da, ez dago horrelako ezinikusirik zaleen artean. Errepide izkinara txirrindulariak ikustera joaten den euskal zaleak ziklista guztiak animatzen ditu. Hasi lehenengotik eta azkeneraino. Eta animo horien babesean erretiratu zen Donostiako Klasikoan iragan abuztuaren 3an Markel Irizar. Txirrindulari oñatiarra errepidean gregario eta bizitzan liderra izan da. Langilea, borrokalaria, euskalduna, konprometitua, bakarra eta errepikaezina. Nahiago nituzke balio horiek dituzten jokalariek bai Athleticen eta bai Realean.

Bizipoz beti nire hamaikakoan.

Nahiago dut Iribar eta Kortabarria 1976an Atotxa zaharrean ikurrina eskuetan zutela irten zireneko euskal derbietako giroa eta izpiritua. Ordudanik, baina, asko aldatu da futbola eta euskal gizartea.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Hong Kong

#### JAKES GOIKOETXEA

[HTTPS://LABUR.EUS/VDCHN](https://labur.eus/vdchn)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Carri Lam Hong Kongeko gobernadorearen erabakia berandu dator.

Hong Kongeko susmagarriak Txinara estraditatzeko egitasmoa bertan behera uzteak nekez baretuko baititu kalean protestetan parte hartzen ari diren milaka herritarren haserrea eta aldaketa nahia.

Estradizioarena izan baitzen mugimendua piztu zuen txinparta, baina hilabeteotan sua hauspotu dute urteetan pilatutako

ezinek, aldaketa nahiek eta baita Poliziak erabili duen indarkeriak ere –ezohikoa han–.

Lamek –Txinako Gobernuak funtsean– zerbait gehiago eskaini beharko die egoera baretu nahi badu.

Estradizioetan atzera egitea ordain txikiiegia da ekainaren hasieratik ia bi mila atxilotu, hainbat zauritu eta Poliziaren errepresioa jasan dituen mugimendu zabal eta dinamikoarentzat.

Protesten kontrako erantzunak auzitan jarri du Hong Kongeko Gobernuaren sinesgarritasuna.

Lamen eskaintza are txikiagoa da ikusita uko egin

diola protestarien gainerako eskaerak onartzeari edota, gutxienez, aztertzeari edo lantzeari.

Eta Txinako Gobernu?

Lamen bidez erantzun du, oraingoz.

Ez dirudi mugimendu politikorik egingo duenik, baina ikusi du errepresioa ez dela nahikoa eta egoera errepresioarekin bakarrik *konpondu* nahi badu, indarkeria gehiago erabili beharko duela.

Protesta zabaltzeko, indartzeko eta globalizatzeo arriskuarekin.

Atzera-bueltarik ez duen egoera bat sortzeko arriskuarekin.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar,  
Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## BERBAGAI

# "Inguruneari lotutako eskola izaten jarraitu nahi dugu"

JOSUNE IRAZABAL MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA ESKOLAKO ZUZENDARIA

**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA Miguel Altuna lanbide heziketa eskolaren astelehenean hasiko du ikasturtea egoitza berrian. 2001ean sinatu zuten erakundeek eskolaren toki aldaketa. Harrezkero, gertutik jarraitu du zuzendariak aldaketa prozesua; batez ere, 2012an zuzendari izendatu zutenetik.

**Atzeratu egin da, baina, azkenean, astelehenean hasiko duzue ikasturtea eskola berrian. Gogorra izan da?**

Bai. Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburu eta Victoriano Gallastegi alkate zirela sinatu zen eraikin trukea. Gorabehera asko izan dira ordutik: legealdi eta agintari aldaketak, krisia...

**Hasierako proiektuan, lur azpiko aparkalekua zegoen aurreikusita. 50 autorendako aparkalekua. Hori ez daukagu, baina eraikinaren aurrealdeetan badaude aparkalekuak eta lehen Candy-rena izan zen aparkalekua ere atondu du Udalak.**



Josune Irazabal, Miguel Altuna eskolaren aurrealdean, eguaztenean. ENEKO AZKARATE

**Kaletik oinez joateko bideak ere egokitzen edo egiten ari dira.**

Eta ondoetorria da hori, ze eroso egiten da herriaren erdigunetik eskolara arteko joan-etorria. Dena den, hezkuntza duala eskaintzen

dugunez, zaila da eskolatik lanera doan ikasle bat auto barik hurbiltzea eskolara.

**Zelako eraikina da?**

Bi eraikin dira. Bati teknikoak deitzen diogu, tailerra eta gela teknikoak daude hor eta 6.300

metro koadro ditu. Bestean, eraikin nagusian, daude administrazio zikloarekin batera zuzendaritza, irakasleak, zerbitzu zentralak eta aretoa. 3.300 metro koadroko erakina da. Guztira, bi eraikinekin, ia 10.000 metro koadro dira. Zaharrak 5.000 zituen. Tailerrarekin oso gustura gaude. Dena solairu bakarrean, dena zabalik... 3.000 metro koadrotan.

**Zenbat ikasleekin hasiko duzue kurtsoa?**

600 inguru. Irakasleak, oster, 76 izango dira.

**Askotariko ikasleak?**

Bai; gaur egun, formakuntza etengabea da eta, honenbestez, 16 edo 18 urtetik hasi eta 50 urtera artekoak dira gure ikasleak; gizezkoak eta emakumezkoak, nahiz eta oraindik ere estereotipoei eusten zaien: ziklo teknikoetan, gizezkoak dira nagusi eta zerbitzuetan, emakumezkoak.

**Zerk egiten du berezi Miguel Altuna, beste lanbide heziketa eskola batzuekiko?**

Urte askoko eta, ondorioz, esperientzia handiko ikastetxea da, inguruneari eta bertako industriari oso lotua. **Zure zubia** da gure azken urteotako leloa. Izan ere, eskolak izan nahi du ikaslearen, beste ikastetxe

batzuen, beste lantoki batzuen... zubi, eta horien beharretara egokitu. Debagoiengan punta-puntako lanbide heziketa eskola bat edukitzea inportantea da. Ikasleen eta enpresen beharrei erantzuten jakin izan dugu; atzerriko beste eskola eta erakunde batzuekin harremanak estutu ditugu eta ikasitakoa eskolan txertatu dugu.

**Mundu mailako kongresua antolatu duzue datorren asterako. Zeren gainekoa?**

Hotzeko estanzazioaren gainekoa. Donostian egingo dugu eta oso inportantea izango da guretako. Eskola berrira ere ekarriko ditugu munduko beste toki batzuetako adituak. Ez da oso ohikoa lanbide heziketako zentro batek antolatzea Japoniatik, Ameriketako Estatu Batuetatik, Koreatik edo Alemaniatik etorriko diren hotzeko estanzazioan aitzindari diren adituak biltzen dituen kongresu bat. **Zein da Miguel Altunaren erronka nagusia etorkizunari begira?** Gune berriari etekina ateratzea, teknologia edo joera berriekin, eta gizarteari, ikasleei eta enpresei, zerbitzu ona ematea. Inguruneak behar duen hezkuntza eskaintza bermatzea.

## ITURRI ONETIK

## Arnasa Gara ekimena Aramaion

Arnasa Gara ekimena abian jarriko dute udazkenean Uema Udallerri Euskaldunen Elkartek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. Irailaren 15ean aurkeztuko dute, Azpeitian. Helburua da euskararen arnasmune diren "herrien ezaugarrien garrantzia aldarrikatzea". Ekitaldi-ibiltari bat egingo da arnasmune diren zenbait herritan, Hego Euskal Herriko 11 udalerritan. Horietako bat, Aramaion. Horretaz gain, Durangoko Azokan aurkeztuko den sail digital bat egingo dute.

## ALBISTE IZAN ZEN



2008-09-07

## Realak 100 urte, eta 'Gontxa' eta 'Gaztelu' batera

Bihar, zapatua, 110 urte beteko ditu Real Sociedad futbol klubak. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Saguesen, hori dela eta. 2008an, entzutetsuagoak izan ziren ospakizunak, mendeurrenean. Realak Bigarren Mailan zen arren. 100. urteurrenaren harira, Goienak Mikel Gonzalez *Gontxa* jokalaria

## HAU BE BADOGU!

## Mikel Iturria, denen ahotan

Murias taldeko ziklista gipuzkoarrak garaipena lortu zuen eguaztenean, Espainiako Vueltako 11. etapan:

@Itturri46: "Egun ahaztezina atzokoa! Urteetan zehar hau lortzen lagundu didaten guztiei eskerrik asko!".

@inakiimaz: "Ederto Mikel Iturria eta Euskadi Murias taldea, gaur lan gogorrrak saria izan du".

@Maiderrlainez: "Zorionak! Bejondeizula Mikel, gaur egin dakoagatik! Izugarria izan da! Eta zorionak baita Andoaingo txirrindularitzari!".

@PerlinesEritz: "Garaipen mundiala lortutakoa!".

## Zauriak hiriburuan

**PITER ENCINAS**

EKOLOGISTA  
ARRASATE

Oso nabarmena da politika-jarduerak ondorioak eta zauriak sortzen dituela; aldi berean, saihestezina dela ematen du, baina nola txikiago daitekeen... hortxe dago koska! Benetan, uste dut parte-hartzea lehen urratsa izan behar dela; honek ez ditu zauriak kenduko, baina onartu behar dugu parte-hartzea sustatzeak, gutxienez, bi alde onuragarri dituela: bata, proiektuak eserlekutik soilik ez direla ikusten; bigarrena, aukera ona dagoela beste ikuspuntu batzuk eta desberdinak entzuteko.

Udal kudeaketa beharrezkoa da, inork ez du kontrarik esaten, baina nire galdera da: kasu gehienetan, udal erabakiak zergatik ez dira joaten parte-hartzearekin batera? Batez ere, udal hauteskundeetan politikari batzuei ahoa betetzen zaielako parte-hartze hitzarekin.

Proiektu gehienak paperean oso politikak geratzen dira, ez dago zalantzarik, baina proiektua bukatuz gero zauriak ikus daitezke; horretxegatik, gai hori agertzen denean, galdera hauek etortzen zaizkit: zein proiektu, zertarako, herriari zein ondorio ekar diezazkioke? Oso erraza da herritarren dirua gastatzea eta, aldi berean, herriaren arazoak konpondu gabe lagatzea.

Araba etorbidearen proiektua, benetan, zertarako da? Uste dut bidegorriarena aitzakia hutsa dela. Bidegorri proiektu landu, funtzional eta praktikoa baten alde baldin badaude, zergatik ez dute lantzen Etxaluzetik kiroldegiraino bidegorriaren proiektua? Berriz, helburua autoak erosoago eta hobeto aparkatzeko baldin bada, ederto! Orduan, olagarro onartzen da maskota bezala.

Gai honen gako nagusia naturarekiko kontzientzia gabezia da; gehienetan, porlana edo asfaltoa naturari nagusitu zaio; proiektu honetan, 60 ezki zerrauts bihurtu dituzte, bi zedro erraldoi moztu dituzte, eta ziur nago hori ez dagoela bukatuta.

Porlanak inoiz ez du emango zuhaitz horiek ematen zuten onurarik: txorientzat babesa, oxigenoa, zarata gutxitu, itzala sortu... gero eta hurbilago gaude Mordor bihurtzeko.

## Facebooken bizi nahi dot!

**MIKEL ARREGI ITURBE**

ANTZUOLA

Oporretan ta jai giruan, inoiz baino gehixao balio daben argazkixak. Facebooken sartu ta mundu danak igo dau sarera irripartsu, alai ta ondo pasatzen agertzen dan argazkin bat.

Krisisa gora ta behera, autonomo falsuak, gero ta kontrato indefinido gutxiao, *erdi klase* deitzen jauen gune

sozial egonkorran desegonkortzia, lan istripuak gora... Asuntua txeferuak botatzetik urrin daon hontan ematen dau Facebook dala munduko gune alai bakarra, baina zeatik?

Sozialki *normalizat* hartzen dan kontsumo ahalmekin lotuko nuke nik, nun disonantzia bat sortzen dan aipatutako soldatapeko lanan prekarizaziñuakin ta etxeko atetik kanpoa sozialki behartuta sentitzen gan kontsumo erritmu artian.

Orduan zoriontsu ga Ibizako plaian, Pirineotako tontorretan edo Thailandian? Edo gure posizio sozialian berresteko behar baten ondorio dia argazki honek?

Galderei buelta batzuk ematen Facebooken euko nazue zai!

## Fal(h)azia

**EÑAUT ZUBIZARRETA**

ARETXABALETA

Oholtza gainera igotzeak –edo fosora jaistea– eskaintzen dizkizu bestela bizi izango ez zenituzkeen zenbait egoera esperimentatzeko, eta gerora bizitakoak erreflexionatzeko aukera. Aurten hamaika aldiz igo naiz oholtzara, eta hiruzpalau aldiz fosora jaitsi *Humanity At Music* (HAM) proiektuaren harira, sentipen koktel interesgarriak biziaz azken hauetan.

Nire buruarekiko higuin puntu bat sentitu nuen Amaia antzokiko lehen emankizunean, 3-4 metro eskasetara Bingen Zupiria

Kultura sailburua ikusi nuenean, aho-zabalka, aurkezleari kulturaren garrantziaz ahoa betetzen zitzaion bitartean. Astebete lehenago *Kulturaren kontrako erasorik ez!* lelopean batu ginen Gasteizen; orduan, berriz, han nintzen Lakuako trajedunen aurrean xalo-xalo jotzen.

Aretxabaletako emankizunean auzo-lotsa sentitu nuen. Proiektatutako irudietan, Euskal Herrian 20 urtetik gora daraman alemaniar bat agertu zen, esanaz euskara ikasten saiatu zela baina zailegia zenez ikasteari utzi ziola. Inongo erreparorik gabe, lau berba triste baino ez zekizkiela esan eta horrekin txisteak egiten hasi ziren. Nire harridurararako, hura barre-algara jendartean! Eta bai, gehienak euskaltzaleak ziren.

Bertan geunden profesionalok lan-baldintza duinak eskatzeko mugitu ere ez ginenean egin, berriz, ez nuen deus sentitu. Agian, musikariok ohituegi gaude kontraturik gabe lan egiten...

Eta, dudarik gabe, etsipenik handiena izan zen orkestrako kide batek aurreko funtzioetan aurkezleak horrenbeste aldiz aipatutako Buesa Arenako emankizunean joko ez genuela esan zuenean. Ez zidan min egin obra ez jotzeagatik, ez baita beste munduko ezer; ezta Buesa Arenan ez jotzeagatik, leku glamurosoagoetan zein antro ilunagoetan jotakoa naiz; baina bai antolatzaileen

jokatzeo eragatik. Bailaran izandako kontzertuetan Arrasate Musikaleko orkestra, horrela esan dezakegu Sinfonia Kooperatiboa dela, eta Buesa Arenako ekitaldi handikoira, berriz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Finean, Errumanian edo Txinan produzitzea bezala, kostuak jaitsi kompetitibitatea mantentzeko. Diskoa grabatzeko orduan ere antzera: hobeto ekipo titularra, badaezpada ere. Akronimoko *H* hipokrisia izan zitekeela, lasai asko...

Txarrean txarren, hilaren 14ko arratsaldea libre izango dut, Bilbora joan eta 47ak herrian nahi ditugula ozenki esateko.

## Betiko leloaren betiko leloa

**MIKEL ARANTZABAL**

EIBAR

Izenburu hor jar diezaiokegu futboleko Real Sociedad taldeari, Realari, Lehen Mailako taldeari.

Ohituta gaude realzaleok: astebeteren buruan, futboleko egitea ahaztu, eta sekulako erridikulua egiten du taldeak. Pase onik ez, korrikarik ez, aukerarik ez...


Orain dela astebete, azken fitxaketek ilusioa piztu zuten zaleengan, eta, astebete geroago, hutsaren hurrengo.

Berriz ere. Ea aste biko atsedanak on egiten dion taldeari; bestela, betikoa: Errege Kopatik kanpo eta Liga erdialdean bukatu.

GUTUNAK: Karaktetarak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



# Gaurtik domekara, hiru egunez jaietan Gelman

Antzinako Etxe Txikietako jaiari jarraipena emateko, iaz egin zituzten jaiak lehen aldiz. Asteburu honetakoak bigarrenak izango dira, eta berritasunik ez zaie faltako: saguzarraren jaitsiera edo domekan egingo duten paella-jana dira horietako batzuk

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Gelmako jaiak hazten doaz, eta hiru egun iraungo dute aurten. Oraingoan, gainera, 10 urte bitarteko gaztetxoak erakartzeko ekintzak sartzen ahalegindu dira. "Goazen! telesailekoak ekartzen ahalegindu gara. Ez da posible izan, baina ziur *3zpa4*-ko lagunak ikuskizunarekin jendea erakartzea lortzen dugula", azaldu du jai batzordeko Andres Castillejok.

Iaz ondo egindakoak errepikatzearen eta gauza berriak txertatzearen alde ere egin dute: "Iaz, puzgarri asko jarri genituen eta oso funtzionatu zuten; beraz, aurten, ez da txikientzako puzgarririk faltako. Baina berritasunak ere egongo dira, eta horietako bat saguzarraren jaitsiera izango da. Iazko jaietako kartela diseinatu zuenak saguzar bat jarri zuen Gelmako erai-kinetik irteten bezala. Irudia asko gustatu zitzaigun eta saguzar horren jaitsiera egitea

pentsatu genuen; Zeledonon jaitsieraren antzerako zerbait. Duela gutxi entsegu moduko bat egin dugu, eta nahiko ondo irten zen. Sorpresa puntua mantentzeko, goizean-goiz egin genuen, badaezpada".

**Egitaraua, egunez egun**

Gaurko, ekintza hauek prestatu dituzte: Kids&Us-en antzerkia 18:00etan, saguzarraren jaitsiera 19:00etan, *3zpa4* telesailekoen ikuskizuna 20:00etan eta AZ Gaubelak-en *show*-a 21:30ean.

Zapatuan, ordea, beste hauek: txaranga 12:30ean, puzgarriak 12:00etan, bazkaria 15:00etan, puzgarriak eta opari banaketa 18:00etan, apar jaia 18:30ean, Iki Muri DJa 19:00etan, su artifizialak 22:30ean eta Alaiki orkestra 23:00etan.

Domeka izango da festei agur esateko eguna, bi ekintza hauekin: dultzaineroak, erraldoiak eta buruhandiak 12:30ean eta paella-jana 14:30ean.



Jai-batzordeko lagunak, martitzenean, festei azken ukituak ematen. XABI GOROSTIDI



XABI GOROSTIDI

## Debagoieneko AEK-k, lokal berria

27 urtez Arrasateko Garibai kaleko eraikinean egon ostean, Arrasate erdialdean, Herriko Plaza ondoan dagoen Iturrioz kaleko 21. zenbakian izango du kokalekua aurrerantzean. Euskaltegi berriaren inaugurazio ekitaldia datorren astean izango da, irailaren 11n, arratsaldeko seietan, eta bertara joateko dei egin diete Debagoieneko herritarrei.

# M€rke 2019 kaia

IRAILA

**06** Ostirala  
16:30 / 20:00



Musika ikuskizunak zuzenean  
Arrasate Musikalen eskutik

**07** Larunbata  
10:00 / 22:00



Musika ikuskizunak  
zuzenean Arrasate  
Musikalen eskutik



Atletismo  
erakustalida  
Biteri plazan  
17:00etan



Aidali taldearen  
kontzertua  
Herriko Plazan  
19:30ean



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Euskaltzi, argelara, hira comen

EUSKO JAIKARITZA

GOBIERNO VASCO



# 38.000 lagunetik gora kiroldegiko igerilekuan

Hori da azken hiru hilabeteek utzi duten datua, eta Ander Garay Kirol zinegotziak "oso positibotzat" jo du, azken urteetan "goranzko joera" mantentzen delako. Erabiltzaileen eskariz, urritik aurrera kiroldegia ordubete gehiago zabalduko dute zapatuetan

**Xabi Gorostid** ARRASATE

Udako datuei erreparatu, 38.000 erabiltzaile izan ditu Musakolako kanpoko igerilekuak uda honetan. Erabiltzaile gehieneko eguna uztailaren 11 izan zen: egun hartan, 1.472 pertsonak erabili zuten kanpoko igerilekua, baina uda garaian eremu lehorra ere erabili dute arrasatearrek; izan ere, aipatu eremuak 15.000 erabiltzaile inguru izan ditu uda sasoiaren.

Joan den ikasturteari dagokionez, Udalak "balorazio positiboa" egin du, antolatutako jarduera gehienek parte-hartze handia izan dutelako: "Jarduera jendetsuenak igeriketa, spinninga eta k-streht izan ziren; azken bi jarduera horietan, okupazioa %90etik gorakoa izan zen".

"Arrakastatsuak izan dira, halaber, pilatesa, zumba eta hipopresiboak, baita aquagyma ere. Aldiz, okupazio gutxien izan duten jarduerak aeropilatesa, body pump-a eta zumba strong



Aitziber Muñoz Kirol teknikaria eta Ander Garay Kirol zinegotzia. AMAIA ZABALA

-a izan dira", Ander Garayk azaldu duenez.

## Zapatuetan, ordubete gehiago

Udalak jakinarazi du urritik aurrera Musakolako kiroldegia- ren zapatuetako ordutegia or-

dubete luzatuko dutela, bai goizean eta bai arratsaldean irekiera ordua ordu aurre-ratuz. Erabiltzaileen eskariei men eginez, ordutegi hau finkatu dute: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

## Arrasate Hiria Txapelketa bihar, Ligarako motorrak berotzeko

Etxeko zaleen babesarekin, indarrak neurtuko ditu Mondrak Añorgaren eta Anaitasunaren aurka

**X.G.** ARRASATE

Mondrak liga hasi aurreko aurkezpen ofiziala egingo du Mojategin bihar. "Jada denboraldi-aurreko bi partidu jokatu ditugu, lehena Briviescan eta bigarrena etxean Gasteizko Aurrera taldearen aurka. Baina, guretzako, Arrasate Hiria Txapelketa da zaleen aurrean egiten dugun aurkezpen ofiziala", adierazi du Xabi Etxeberriak, taldeko presidentea, Arrasate Irratiko mikrofonoetan. 45 minutuko hiru partidu jokatuko dituzte: 16:30ean, Añorga eta Anaita-



Eraña, iazko txapelketan. IMANOL SORIANO

suna; 17:30ean, Mondra eta Anaitasuna; eta 18:30ean, Mondra eta Añorga.

## Bi fitxaketa

Denboraldi berrirako bi fitxaketa egin ditu ohorezko erregional taldeak: Josu Arizmendiarrrieta eta Xabi Alberdi.


Arizmendiarrrieta arrasatearra da, euskarri edo aurrelari bezala jokatu dezake eta UDATik etorri da. Iaz, sekulako gol puskarta sartu zion Mondrari Atxabalpen, UDako elastikoarekin, eta ziur horrelako golak sartuz azkar poltsikoratuko dituela Mondrako zaleen txaloak. Alberdi, ordea, atzelaria da, Urola taldetik dator, eta atzealdeko postu guztietan joka dezake. "Badago bete daitekeen hutsuneren bat, baina taldea oso maila ona ematen dabil".



Spinninga: parte hartze handien duen aktibitateetako bat. ARANTZAZU EZKIBEL

## Bi jarduera berri, eta ate irekiak

Ate irekiak egingo dituzte irailaren 10etik 13ra, herritarrek kirol ekintza ezberdinak doan proba ditzaten. Ate irekiei buruzko informazioa [www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus) webgunean dago ikusgai. Berrikuntzei dagokionez, bi izango dira aurten: 2014 eta 2015. urteetan jaiotako haurrei zuzendutako *Haurrakitibiti* jarduera berria, batetik, eta *Larunbat aktiboak*, bestetik, larunbat goizetan spinning eta konbi-tonoa bateratuko dituen jarduera. Joan den ikasturtean jarduera gehienek parte-hartze handia izan dutela azaldu du Ander Garayk: "Jarduera jendetsuenak igeriketa, spinninga eta k-streht izan ziren; azken bi horietan, okupazioa %90etik gorakoa izan zen. Arrakastatsuak izan dira, halaber, pilatesa, zumba eta hipopresiboak. Okupazio gutxien izan dutenak, aldiz, aeropilatesa, body pump-a eta zumba strong-a izan dira".



Zu hemen zaude,  
AEK ere bai

100 euskaltegi baino  
gehiago Euskal Herri osoan

EUSKALTEGI  
BERRIA  
herriko plazan

EUSKARA-IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA TITULU OFIZIALAK

Iturriotz 21, behea Arrasate · 943 77 03 69

[arrasate@aekeus](mailto:arrasate@aekeus)

# Trikitiak eta gin-tonicak, bosgarrenez bat eginda

Arrasateko Trikitixa Eskolak ate irekien jaia egingo du gaur, 'Eskola Plazara' lelopean; Trikigin lehiaketak ukitu freskagarria emango dio arratsaldeari; eta panderoak nola egiten diren ikusteko eta talo ekologikoak dastatzeko aukera ere izango da

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasturte berria besarkatzeko gogoz daude, eta horren seinale da gaur Herriko Plazan egingo duten ate irekien festa. *Eskola Plazara* leloa aukeratu dute aurtengo ediziorako, eta, azken urteetako arrakasta ikusita, Trikigin lehiaketa antolatu du te berriz; bosgarrena izango da aurtengoa.

**Herriko Plaza, jaiaren epizentro**

Festa hasteko, kalejira musikatua egingo dute. 18:00etan abiatuko dira, Biteritik, eta doinu alaiak joaz Herriko Plazarako bidea egingo dute.



Trikitia eta gin-tonica, nahastuta. I. S.

18:30ean, *Gurozuna jo* izenarekin bataiatu duten saioa hasiko da. Helburua da eskolako ikasleek lotsa alde batera utzi, eta jotzen dakiten hori plazaratzea: "Ikasleek nahi dutena jo ahal izango dute; banaka, binaka edo taldeka. Ahalik eta gehienek parte hartzea nahi dugu", adierazi dute Eskolako arduradunek.

Ikasleek jotzen duten artean, hainbat postu egongo dira Herriko Plazan. Horien artean: pintxoak, sagardoa eta ardoa dituen postua, panderoak egiten dituen artisaua, ekotaloen postua, eta Txatxilipurdik dinamizatutako haurrentzako jolasak ere bai. Horrez gain, Trikigin lehiaketaren bosgarren aldia egingo dute. Herriko zerbitzari trebeek gin-tonica maisuki nola prestatzen den erakutsiko dute, eta, ostean, edari guztien artean onena aukeratuko dute epaimahaiko kideek.

Festa borobiltzeko, Kristina Maixa eta Irati taldeak kontzertua joko du, 20:00etan.

**Izena emateko aukera**

Instrumentu horrekin trebatzen hasi nahi dutenek Herriko Plazan bertan eman ahaliko dute izena. Iaz, 170 ikaslerekin itxi zuen Eskolak urtea, eta berriak etortzeko gozoz daude.



2018ko literatur solasaldi bat. GOIENA

## Psikologiari eta literaturari buruzko solasaldiak, berritasun

Literatur solasaldiak bueltan datoz: gaztelerazkoak, euskarazkoak eta ingelesezkoak, eta ziklo berri bat

**X.G.** ARRASATE

Oporretako etenaren ostean, ekintzaz beteta hasiko du ikasturte berria Bibliotekak. Euskarazko, gaztelerazko eta ingelesezko literatur solasaldiez gain, literatura eta psikologia uztartzeko gomendio saioak egingo dituzte, hilean behin, Silvina Fondra psikologo argentinarrarekin.

**Euskarazkoak**

Alex Gurrutxagak gidatutako saioak izango dira, eta 18:30etik 20:30ak arteko ordutegia edukiko dute. Abendura bitartean, hiru hitzordu: urriaren 31n, Mikela Elizegi idazlearen *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatuta* ipuinari buruz; azaroaren 28an, Natalia Ginzburg idazlearen *Gure etxeko kontuak* liburuari buruz; eta abenduaren 12an, Irati Elorrietaren *Burbuilak* liburuari buruz.

**Gaztelera eta ingelesa**

Gaztelerazko saioak Ane Zapaterok koordinatuko ditu, eta horietako lehena urriaren 23an izango da, Jose Saer idazlearen *El Entrenado* liburuari buruz. Ingelesezkoak, ordea, Olwen Mearsek gidatuko ditu eta horietako lehena azaroaren 12an egingo dute, Jane Austen idazlearen *Persuasion* liburuari ipar hartuta.

**Psikologia eta literatura**

Ikasturte berri honetarako, solasaldi ziklo berri bat prestatu dute Bibliotekako lagunek, psikologiak eta literaturak duten loturan sakontzeko asmoz. Silvina Fondra argentinarrak gidatuko ditu saioak –iaz Oñatin egin zituen antzerakoak– eta urriaren, azaroaren eta abenduaren saio bana egingo dute. Saio guztiei buruzko informazioa *Goiena.eus* webgunean dago ikusgai.

*Dantzan ikasi nahi?*

## PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

lotuan - soltean - jauziak - ingurutxoak - kontrodantzak - mutildantzak - plazako dantzak - sokadantzak...

**URRIA - MAIATZA** astelehenetan  
Hasiera: urriak 7  
Oinarrizko maila eta dantza-txokoa

Ikus egitarauak: [www.herrixadantzan.eus](http://www.herrixadantzan.eus)

**IZENA EMATEA:**  
AED: 943 771228 / [aed@aedelkartea.eus](mailto:aed@aedelkartea.eus)  
GAZTE BULEGOA: 943 252065 / [gaztebulogoa@arrasate.eus](mailto:gaztebulogoa@arrasate.eus)

Antolatzailea: Legurtzaileak:

arbolapeta

arrasate

beinke

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

# Munduko onena Aramaiokoa da

Hilabete badu lorpenetik eta dagoeneko egindakoa barneratu duela dio Aitor Ugartek. Oroitzapenak, fresko: "Bigarren lasterketan helmugan sartu nintzenekoa, izugarrizko ilusioarekin, emozioarekin..."; momentu huraxe nabarmentzen du denen artean

## Julen Iriondo ARAMAIO

Abuztuaren 2tik 4ra jokatu zen gazteen Munduko Txapelketa mendi lasterketetan, Italian. Aitor Ugartek bigarren egin zuen kilometro bertikalean, eta emaitza errepikatu zuen iraupen proban; biak batuta, aramaioarra sailkapen buru: Munduko txapeldun!

## Sierra Nevadatik Italiara

Uztailean Sierra Nevada irabazitako Espainiako Txapelketa ireki zizkion Mundukorako ateak. Italian egoteko txartela zuen begiz jota denboraldi hasieratik, eta lortu zuen. Orduetik aurrerakoa esperientzia berri bezain ederra izan du.

Sierra Nevada itzuli zen uztailean; kasu horretan, baina, Espainiako selekzioko gainerako kideekin batera, Goi Errendimenduko Zentrora, Munduko Txapelketa prestatzera: "Izugarrizko instalazioak dituzte, eta kirolari onenak daude han. Txundituta nengoen!".

"Oso ondo" zaindu zituzten; askotariko proba eta kontrolak, gimnasioa eta kanpoko entrenamenduak: "Hemezortzi neska mutiko ginen. Giro ona izan genuen geure artean, elkar ezagutzeko aukera". Eta ikastekoa: "Nire lehen bertikala duela urtebete izan zen. Entrenatzaile bila ibili nintzen, baina, azkenean, nire kabuz hasi nintzen; irteten nintzen mendira, baina disfrutatzen: 'Gaur gogoia dut irteteko, irtengo naiz; bihar ez badut, ez naiz irtengo'. Horrela entrenatuz iritsi nintzen hara, eta ikusi nuen denek dituztela euren entrenamenduak, dena ondo neurtuta... Arratsaldeetan bakoitzak bere entrenamendua egiten zuen, eta ni galdezka joaten nintzen: 'Zuk zer egin behar duzu? 30 segundoko serieak? Ez,



Aitor Ugarte, ibarrako etxeak atzean dituela, dominak erakusten. J.I.

hori ez'. Beste bati galdetu, eta: '2.000 metroko desnibela? Hori gehiegi da'. Beste batek ez dakit zer serie egin behar zuela eta: 'Bada, zurekin noa!'. Hura ikusita -eta erakutsi dituen bertuteekin-, gauzak beste era batera egiteko gogoia sortu zaiola dio.

Eguntxo batzuk etxean berriro, eta Italiara, lehen lasterketa baino bost egun lehenago; ibilbideak aztertu, entrenamendu lasai batzuk egin... "Eta ordu pila bat ping-pongean!". Lehia bezperatan atsedena soilik, eta lehen lasterketa.

## Kilometro bertikala

"Izugarrizko beroa egiten zuen behean, eta goian txingorra -ni ez ninduen harrapatu-, goian hotz; hotzikarak-eta izan nituen. Ez nintzen batere gustura geratu bertikalarekin, denbora hobea egitea espero nuen".

Ekaitza tarteko, erlojupekoaren emaitzak ezin izan zituzten unean-unean eman: "Ez nuen espero ezer". Baina, hara non, bigarren denbora onena zela Ugarterena, korrikalari askoren denborak ezagutzeke oraindik, hori bai. Azkenean, gauerdian ezagutu zituzten denbora guztiak, eta bigarren: "Oihu batean deitu nuen etxera!".

Zapatuan atsedean eta domekan iraupen proba: "Probatzera atera nintzen, ze nirea bertikala zen. Baina egia da niretzako egokia zela, desnibel handia zuelako. Lehen zatia barikuko lasterketako bera zen, eta orduan baino minutu bat gehiago egin nuen bakarrik: eta ni oso pozik, ze indarrak gordetzen joan arren minutu bat gehiago baino ez egitea... Bigarren nindoan, errusiar bat lehenengo; ni ez nintzen konturatu, baina azken jaitsiera hasieran errusiarrek pot egin zuen, eta bazterrean geratu zen. Lau kilometroren faltan italiar batek pasatu ninduen -goian bosgarren edo seigarren zihoan-. Baina niretzako izugarria zen iraupen proban podium egitea. Eta italiarraren bertikaleko emaitza gogoan, eta jakinda lehen lasterketako irabazlea ez zela bigarrenen atera: 'Konbinatua irabazi dut!'".

Sari handia aramaioar gaztearentzat: "Erregularrena eta konpletoena izan zarela erakusten du. Igotzen ona izan behar duzu, baina jaisten ere bai, eta irauteko gaitasuna eduki".

## Aldaketarik ezean, hamahiru langilerekin hasiko da eskola

Uztaileko berria izan zen Hezkuntza Sailak aurrekoak baino hiru langile gutxiago aurreikusi zituela San Martin eskolaren ikasturte berrirako, hamabi. Egindako gestioak tarteko, bat gehiago izatea lortu zuten -Lehen Hezkuntzako irakasle bat-. Eskolak, baina, premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko baliabiderik gabe segitzen du.

## Lapurrak sartu ziren eguaztenean Uribarriko etxe baten

10:30 eta 13:00 artean izan zen gertakaria, Uribarriko baserri batean, eguaztenean. Etxean inor ez zegoela aprobeztatuta, leiho bateko kristalak apurtuta sartu ziren lapurrak etxe barrura. Segurtasun Sailekoek adierazi dute eurek 13:00etan jaso zutela gertakariaren abisua. Informazio gehiago ez dute eman, gertakaria ikertzen ari direlako.

## Andra Marin urteroko ospakizuna izango dute domekan

Domekan, hilak 8, izango da Andra Mariko ospakizuna. 11:00etan, salda eta txorizoa izango dira, trikitilariak eta txalaparta doinuek lagunduta. 12:30ean hasiko da meza, eta, ondoren, 13:30ean, kofradiaren batzar nagusia egingo dute. Bazkariaren txanda izango da hura amaitutakoan, eta umeentzako jolasak izango dira, 17:00 aldera.

## Adinekoentzako hainbat deialdi ikasturte hasieran

Sasoian egoteko gimnasia saioak irailaren 17an hasiko dira. Udaltean eman behar da izena. Bestetik, Alaiak elkartearen memoria tailerrera izena emateko azken eguna martitzena da, baita euskara ikastarorako apuntatzeko ere. Hilaren 15erako eman behar da, berriz, 22an izango den Alaiak elkartearen bazkide egunerako izena.

## Zorionak, eskerrak eta eskeak

"Mugikorra sutan eduki nuen"; ez baita edozer Munduko txapela. Hamaika zorion mezu, eta berak eskerrak: "Jende askori, baina, batez ere, etxekoei: Mundialera iritsi banaiz, neurri handi batean, amaren errua da".

Eta aldarrikapen bat: selekzioko hemezortzi kideetatik sei ziren euskaldunak. "Gazteetan ere selekzioa behar dugu Euskal Herrian".



Aitor Ugarte, Munduko Txapelketan. PAT SOLER



Kilima haur dendako Merixell Serrato, Ixadebalde azokarako gertatutako jeneroarekin. MIRARI ALTUBE

## Musikarekin girotuko duten Ixadebalde, gertu

Gaur eta bihar egingo dute merkealdien azoka Aretxarte elkarteak hainbat merkatarik; ohi legez, "prezio bereziak, kalitatea eta zerbitzu ona" eskainiko dituzte mojen komentuan, eta aurten, AZ Gaubelak DJek girotuko dute egubakoitz iluntzea

### Mirari Altube ARETXABALETAKO

Hemeretzigarrenez egingo du Aretxartek Ixadebalde merkealdien azoka. Mojen komentuan elkartuko dira gaur, egubakoitza, egun guztian -10:00-14:00 eta 16:30-20:30- eta bihar, zapatua goiz partean -10:00-14:00-. Egubakoitz iluntzea girotzeko, gainera, Alberdi eta Zangitu DJen laguntza izango dute.

### Sei postu, genero ugari

Sei merkatarik jarriko dituzte postuak eta aurtengo udaberri, uda sasoiko eta iazko neguko jeneroa eskaini. Guztiak dira arropa eta zapata dendak; hona hemen: Asensio, Belar Meta, Haurrak, Kilima, Titare eta Tak. Umeendako, gazteendako zein helduendako arropak izango dituzte aukeran, baita barruko arropak, zapiak, poltsak eta gainerako osagarriak, oinetakoak eta beste hainbat kontu.

"Postu bat gutxiago izango da aurten, eta, horren ondorioz, leku zabalagoa begiratzea eta

erostera datozenek", jakinarazi du Merixell Serratok, azokaren arduradunetako batek. Aldage-la bat ere egokituko dute bertan, ispiluarekin, arropak probatu gura dituenarendako. "Sekula baino mauka gehiago izango dira, eta kalitatea bermatuta dago, betiere, zerbitzurik onenarekin; horretan ahalegintzen gara, behintzat. Zalantza barik,

herritarrak gerturatzea animatuko nituzke", gaineratu du Serratok.

### Bonuen zozketa

Ohitura duten legez, herritarrak saritzen ere ahaleginduko dira. Hala, 50 euroko sei bonu zozketatuko dituzte, zapatuan, azokatik pasatzen diren bezeroen artean.



**MERIXELL SERRATO**  
KILIMA ARROPA DENDA

"Gerturatzea animatuko nituzke herritarrak. Bertako merkataritzari eustea garrantzitsua da, herriari bizitza ematen diolako".



**SAIOA TEJEIRO**  
TITARE SHOP

"Aretxabaletarrei egiten diegun eskaintza da Ixadebalde azoka, eta mauka benetan politik egoten dira, ez galtzeko modukoak. Etorri lasai!".



NIRE USTEZ


INAXIO GARRO

### Txindurriak

Aurtengo opor-garaian, errepidean aurrera eta atzera ibiltzea tokatu zait, nahi baino gehiagotan, Errioxatik hona eta hemendik Errioxara. Bada joan-etorrietan atentzioa eman didana. Uztaile eta abuztu bukaeran, eta baita abuztu hasieran ere, txindurritxoak bezala, zientoka eta zientoka kotxe handi eta txikirekin gurutzatu nintzen. Aurreneko egunotan, kotxe gainean metro bateko karga zeramaten gehienek, Europa izeneko ametsean urtean zehar irabazitakoa jatorrizko sorlekura eramanez. Karga sentimental, ordea, bihotz barrenean bilduta, etxeoak, bizilagunak, berriz ere ikusi eta besarkatu ahal izateagatik.

Oporraldiaren amaieran, ordea, berriz ere European gorako bideari hartzerakoan, kotxe gaineko kargak hustuta bueltatzen dira, baina emozioz eta bizipenez gainezka, hurrengo oporraldiaren zain. Bitartean, gertu samarrean, itsasoan zehar balantzaka ari da beste pertsona mordoxka bat, erreskate ontzitan Europara bizitza eta duintasun bila etorri nahian. Tragedia horren aurrean, Europa "zibilizatu" horren agintariak beste alde batera begira jarrita daude lotsagarri. Noiz arte jarrera hori?

### GORA ETA BEHERA



M.A.

### Arrapala plazatik Santa Kurtz kalera



Hainbat herritar agertu dira pozik Herriko Plazatik Kurtzbarri eskola parera egindako arrapalarekin. "Ume-kotxeekin, gurgil aulkiekin eta bizikletekin igo daiteke, eta oinez ere erosoago".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

### Kurtzbarriko eguna ospatuko dute domekan herritarrek

Irailaren 8an, domekan, ospatuko du Murruxio mendizale elkarteak Kurtzbarri mendiko eguna. Ohi legez, mendi tontorrera joateko dei egin die herritarrei zein inguruetakoz mendi-zaleei. Goiz erdiaren bueltan, gora iritsitakoan, salda eta mokadutxoak eskainiko dituzte, baita xanpaina ere, jai giroan borobiltzeko eguna.

### Irailerako eta urrirako gertu dituzte ikastaroak KZgunean

Hainbat ikastaro dituzte KZgunean datozen bi hilabeteetarako; besteak beste, Interneten gaineko oinarriko ezagutzak, argazkigintza eta bideogintza lehen pausoak, enplegu bilaketa eta aisialdiari begirakoak -argibide gehiago: [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)-. Izena aurrez eman behar da; hona hemen bideak: 943 02 36 14 edo [tutor.aretxabaleta@kzgunea.net](mailto:tutor.aretxabaleta@kzgunea.net).

# Magia nagusi domekara arte Aretxabaletan

Magia Astearen barruan egitarau zabala prestatu du Aretxabaletako Udalak, eta, eguaztenean hasita, domekara arte mago ugari izango dira egunotan ikuskizunak eskaintzen: Las Niñas Del Mago, Hodei magoa, Txoborro, Tor eta Txan magoak

**Imanol Beloki** ARETXABAETA

Ilusioa, magia, tranpa, eskuen bizkortasuna eta abilezia, denetik dago aste honetan Aretxabaletan. Izan ere, Magia Astea antolatu du Aretxabaletako Udalak eta eguaztenean hasi zen herria magia betetzen. Lehengo hitzordua nagusien egoitzan izan zen; izan ere, gertuko magia saioak eskaini zizkieten egoiliarrei Hodei, Las Niñas Del Mago eta Txoborro magoek. Ondoren, pintxo-potea zela aprobetxatuz, kalez kale ere aritu ziren. Horrekin batera, domekara arte zenbait saio izango dira herriko hainbat txokotan.

Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak azaldu duenez, jendeak disfrutatzea da asmoa. "Ekintza ugari antolatu ditugu Magia Astearen barruko egitarauan. Egitasmoari hasiera emateko kaleko emanaldiaren apustua egin dugu, eta, horrekin batera, Zaraia aretoan hainbat ikuskizun ere prestatu ditugu astebururako. Beraz, ea animatzen diren herritarrek magia ikuskizun hauetara joaten eta bikain pasatzen duten".

**Emanaldi ugari asteburuan**

Gaur, egubakoitza, magia taillerri izango da Arkupen, gazte-txontzat. 11:00etan, Txoborro eta Tor magoekin bi saio izango dira, hurrek magia egiten ikas dezaten; 6-10 urte bitartekoentzat izango da saio bat, eta bestea, berriz, 11-14 urte bitartekoentzat. Arratsaldean, berriz, Txoborro eta Tor magoek *Saloon* ikuskizuna eskainiko dute, 18:30ean, Herriko Plazan. Mendebalde urrunean girotuta, hurbileko magia gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Zapatuan, aldiz, Hodei magoaren *Tutti-magia* saioa izango da, 19:00etan, Zaraia aretoan. Ilusionismoaren munduko diziplina desberdinen arteko ibilbideaz gozatzeko aukera izango dute



Zenbait mago eguaztenean izan ziren zaharren egoitzan trukoak egiten. IMANOL BELOKI

bertaratzen direnek, hainbat objekturen manipulazioa, mentalismoa, arrisku-jokoak... Domekan, berriz, magia-asteari amaiera emateko, Txan magoa izango da, 19:00etan, Zaraia aretoan. Magia jokoetarako pilotak, zapiak, kartak, sokak... erabiliko ditu, eta, ilusionismo saioetan egin izan duen moduan, umorea oinarritzko elementu izango du.

**Nagusientzat zein txikientzat**

"Orokorrean, harrera ona izaten du Magia Asteak; batez ere,

haurrek dute gustukoena, baina nagusiei ere asko gustatzen zaie. Hala, asteari nagusien egoitzan eman diogu hasiera, gertuko magia saioa eskainiz. Asteburuko hitzorduak, aldiz, familientzat zuzendutakoak izango dira... Gainera, Carmen eta Bego Cabeza ahizpak ere ditugu gurean, Las Niñas Del Mago ezizenez ezagunagoak direnak. Espainian dagoen emakumezko mago-bikote bakarra da, eta ibilbide luzeko artistak dira...", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.



**LAS NIÑAS DEL MAGO**  
MAGOAK

"Txanponekin, kartekin... joko ugari eskaini ditugu. Hala ere, agertoki gainean ikuskizuna eskainiko dugu gaur, gure gustukoena dena".



**HODEI DOMINGO**  
MAGOAK

"Hurbileko magia egiten izan gara, parte-hartzailea eta oso bisuala da. Horrez gain, familientzako ikuskizuna ere eskainiko dugu zapatuan...".

## Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Arentzan

Gaurtik domeka eguerdira arte, hitzordu mordoak izango dituzte; besteak beste, auzo-afaria eta ginkana

**I.B ARETXABAETA**

Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte asteburuan Arentza auzoan. Gaur hasi eta domekara eguerdira arte, hitzordu ugari izango dituzte bertan. 20:00etan, kanpai eskolakoek eskaintako kanpai-joaldien ondoren, tantaia jasoko dute eta auzoko pertsonaia Martin Kabarrixa auzoratuko dute. Ondoren, auzo-afaria izango dute eta afalostean kantuan eta dantzan egingo dute elkartutakoek.

Zapatuan, txistularien diana-rekin hasiko dira, 10:30ean, eta 12:00etan, meza izango dute Basotxokoek lagunduta. Gero, argazkiak aterako dituzte, eta bertako jakiekin osatutako mokadutxorako tartea ere izango dute: Elizondoko tortillak eta Mitarte aldeko txorizoak. 35. ginkana izango dute gero, eta Arentzako jolasak ostean.



Arentzako jaietan, jolasak. GOIENA

**Talde argazkia Kurtzebarren**

Domekan, Kurtzebarri mendiko egunarekin bat egingo dute; 09:30ean, Iturriko erromararik irtenda joango dira. Tontorrean auzotarren argazkia aterako dute, eta jaiak Martin Kabarrixa etxeratuta bukatuko dituzte.

*'Auzoak ditako XIX. mendearen azala'*

## IXADEBALDE mojetan


**IRAILAK 6**  
10:00-14:00  
16:30-20:30

**IRAILAK 7**  
10:00-14:00

**ZOZKETA**  
50€ (hasi)  
6 BONO



Ikurrinari egindako agurrean udalbatzako kideak eta herritarrak elkarrekin.



Oihana Aldai, pregoia botatzeaz.



(H)ari ginen, (H)ari gara! lelodun kamisetekin gazteak, bazkaltzen hasteko.

## Herritarrek sortutako giro onak borobildutako jaiak

Andramaixek iaz baino herritar gutxiago ekarri duten susmoa dago, baina elkartutakoak bat datoz eta jai ezin dotoreagoak izan direla esan dute; Kuadrillen Egunak iritsi behar izan zuen jendetza elkartzeko kaleetan zein txosnagunean

### Mirari Altube ARETXABALETA

Udaleko Kultura Saileko kideak eta txosnaguneko ekitaldiak antolatzen Atxabaltako Gazte Mugimendukoak pozik agertu dira jaiak emandakoarekin.

"Giro oso ona egon da eta jendeak gozatu egin du", dio Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak. Horren adibide aipatu ditu aldatetek izandako harrera beroa: "Pilota partiduak gauetik arratsaldera pasatu izana eskertu digute. Eta vermouthe dantzaldiak jendetza elkartu zuen".

Hobetzekoan artean kontu bi aipatu ditu: batetik, ur-jolasetan ume batzuek izandako erredurak joko berri baten ondorioz; eta,

bestetik, herri bazkarian paella barik geratu izana hainbat lagun: "Zenbaitek behar baino paella plater gehiago hartzen dituzte. Zelan konpondu pentsatzen gabiltza, tiket sistemaren bat jarrita edo". Tristura ere agertu du: "Tiritirantes konpainiako munstroetako bat apurtu egin zen, gaztetxo batzuk zintzilika-tu egin zirelako haren lepotik".

**PILOTA PARTIDUEN  
ORDUTEGI ALDAKETAK  
ETA VERMOUTH  
DANTZAK HARRERA  
BEROA IZAN DUTE**

### Txosnagune "indartsua"

(H)ari ginen, (h)ari gara leloari jarraiki egin dituzte txosnaguneko ekitaldiak Atxabaltako Gazte Mugimenduko kideek: "Gazteon ilusio eta indarrari esker, egun bakoitza egun oso berezia izan da. Eta posible izan da herritarren parte hartzeari esker, asanblada bakoitzean parte hartu duten pertsonengandik hasi, egitarauko protagonistetatik pasa eta egunero txosnagunea koloreztatu duten norbanakoetaraino. Guztiek sortu dute txosnagune indartsu bat". Hurrengo hitzordua irailaren 21ean dutela adierazi dute, Gazte Egunean.



Aretxabaleta Abesbatza jaien hasiera giroten udaletxe aurrean.



Tiritirantes taldeak ekarritako munstroak kaleak giroten.

Artisan-ogia, etxean bertan egina

25urte  
bete ditugu.



ARETXABALETA  
OKINDEGIA

ARETXABALETA

Basabe poligonoa 2

eskerrik asko  
bidea gurekin  
egin duzuenoi.

Loramendi 6





Udalbatzako hainbat kide elizara bidean Andramari Egunean.



Jazz doinuekin girotzen Brazztet MV Brass Bandako musikaria.



Herriko eta Eskoriatzako txistulariak kalejiran.



Herriko pilotari gazteak, garaikurrarekin, hainbat partidu jokatu ostean.

**UDALBATZAKO KIDE  
BATZUK LEHENENGOZ  
JOAN ZIREN  
ANDRAMARI EGUNeko  
MEZA NAGUSIRA**

**JOLASERAKO UNEEK,  
IKUSKIZUNEK ETA  
TAILERREK  
BOROBILDU ZUTEN  
HAURREN EGUNA**



The Potes talde arrasatearreko kideak kantuan Herriko Plazako oholtzan.



Beñat Zubizarreta eta Janire Iglesias, txupina botatzeko gertu.



Gaztetxoak gustura hiru gurpileko ibilgailuetan.



Txirindulariak herrian sartzen, Leintz Bailarako 81. lasterketan.

**ARETXARGI**

**aretxargi@aretxargi.com**

**BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA**

**☎943 532 628 ☎645 734 032**

**INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK**



**BERROGEI LAGUNEK  
JOKATUTAKO BOLA-  
TXAPELKETA IRABAZI  
ZUEN ASIER AZKARATE  
BERGARARRAK**



Herritarra bola jaurtitzeko gertu aurren berreskuratu den txapelketan.

**WOOD STRINGS TALDE  
ARETXABALETARRAK  
TXOSNA-GUNEA  
GORAINO BETE ZUEN  
HILAREN 16AN**



Wood Strings taldea txosna-guneko oholztan.



Gaztetxo kuadrilla paella jaten.



Gazteak arrautza harrapatu guran Herriko Plazan egindako jokoetan.



Jendetza Durana kalean Rockalean taldearekin dantzan.



Bigantxa gaztetxo kuadrillari oldartzeko asmotan.

**650 LAGUNENDAKO  
GERTATU ZUTEN  
PAELLA AURTEN,  
DENA DEN EZ ZEN**

**ROCKALEAN ETA  
ZOPILOTES TXIRRIUS  
TALDEEK KANTUAN  
ETA DANTZAN JARRI  
ZUTEN JENDETZA**



Jendetza txosna-gunean Zopilotes Txirrius talde nafarraren bueltan.

**SANER**

Iturgintza, gasa eta berogailuak  
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa  
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa  
943 71 52 51 / 605 71 66 92

Bainuontziaren  
ordez dutxa  
jarriko dizugu  
**EGUN BATEAN!**

Galdarak  
aldatzen  
ditugu

Komunen eta sukaldeen zaharberritze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak

## EGITARAUA

### IRAILAK 06

#### EGUBAKOITZA

**17:30** Etxafuegoak eta bonba japoniarrak.

**18:00** Apar festa.

**19:00** Buruhandiak.

**21:00** Bolatokiaren irekiera.

**22:00** Rock kontzertuak: Txerrikumeak, Sofokaos eta Streetwise.

**23:00** Bolo txapelketa. 02:00ak arte irekita.

### IRAILAK 07

#### ZAPATUA

**09:00-12:00** Leintz Gatzagako pilota txapelketako FINALAK.

**11:00** Txistularien kalejira.

**12:00** Trokolo Teatro kale antzerkia.

**13:30** Kantu-poteoa, Atxabaltako Kantuen Kofradiaren laguntzarekin.

**16:00-18:00** Haurrentzako jolas parkea eta puzgarriak.

**17:00** Mus eta briska txapelketak, Toki Eder elkarteak.

**18:00** Kintoen arteko jolasak.

**19:00** Bederatziurrena Dorletan, Eskoriatzako abesbatzarekin. Ondoren, gazta eta ardoa.

**21:30** Herri afaria. Txartelak, Lanbidean, 15 eurotan.

**23:00** Parrapas taldearekin dantzaldia. Ondoren, The Big Mac taldearen emanaldia.

### IRAILAK 08

#### DOMEKA

**10:00** Gatz Bidean gora, Eskoriatzako plazatik hasitako ibilbidea.

**11:30** Otxandiarrei eta Gatz Bidetik oinez etorritakoei ongietorria eta salda txistulariekin. Herriko plazan.

**11:30** Bolo txapelketa, haur eta gaztetxoendako.

**12:00** Meza nagusia Dorletan, Eskoriatzako abesbatzarekin.

**13:00** Herri kirolak.

**15:00** Paella erraldoia. Txartelak, Lanbidean, 15 eurotan.

**17:00** Otxandio-Gatzaga jolasak -sokatira, boloak eta dokea-.

**18:00** Kontzertua Los Tenampas Y El Mariachi taldearekin.



Herritarrak, gustura, iazko paella-janean. GOIENA

**LEINTZ  
GATZAGA**  
IRAILAK 6,7 eta 8  
**ANDRAMAIXAK**

"Leintz Gatzagako Udalak Andramari jai zorientsuak opa dizkizue gatzagar guztioi!"



Txerrikumeak taldearen emanaldia, ekainean. GOIENA

# Musikarik ez da faltako aurten Gatzagako jaietan

Eskaintza zabala izango da aurten ere Leintz Gatzagako jaietan. Txerrikumeak, Sofokaos eta Streetwise taldeak arituko dira egubakoitzean. Zapatuan, bestalde, Parrapas erromeria taldearen eta The Big Mac DJen txanda izango da

## Jone Olabarria LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean emango diete hasiera Andramaixei eta dagoneko prest dute egitaraua Gatzagan. Musika eskaintzari dagokionez, punk-rock kontzertuak izango dira aurten nagusi: Txerrikumeak, Sofokaos eta Streetwise. Hortaz gain, erromeria doinuak, DJak eta mariatxiak ere entzungai izango dira.

Gatza City Crew taldea arduratu da kontzertu horietako askoren antolaketa, eta, orokorrean, urtez urte "harrera oso ona" izan ohi dutela azaldu dute. Aurten ere hala izatea espero dute, eta, jaietako emateko, egubakoitzean, hilaren 6an, 22:00etan, Txerrikumeak Aretxabaletako gazte taldea arituko da taula gainean.

## Nafarroatik ere, punk-rocka

Haien ostean, Sofokaos talde Nafarrak ere punk-rock doinuak beteko du Gatzaga. Laukotea 2012an sortu zen, Antsoingo, Arrotxapeko eta Txantreako lagun taldeen eskutik. Kideek gitarraren, baxuaren eta bateriaren doinuak konbinatzen dituzte, oro har, Barricada, Segismundo Toxicomano, Des-

## Oztopoen gainetik, aukera ugari

Egubakoitzeko kontzertuak lotzeko, batez ere, "hainbat zailtasun" izan dituztela adierazi dute Gatza City Crew taldeko kideek. Izan ere, taldeekin harremanetan goiz jarri ziren arren, "askok hartuta zituzten egun horiek". Dena den, "pozik" daude lortutako emanaldiekin eta jendea animatu nahi izan dute kontzertuetara gerturatzen.

Hala, "aukera zabala" eskaintzen saiatu dira eta egun gehienetarako emanaldiren bat antolatu dute, "denentzat aukerak egon daitezten". Herritarren aldetik "laguntzeko grina" sumatu dutela adierazi dute, eta normalean baino jende gehiago laguntzeko prest agertu dela azaldu dute. Urtez urte "harrera ona" izan ohi dute musika ekitaldiekin eta aurten ere horixe espero dute.

kontrol eta halako taldeen bertsioak jota. Horretaz gain, ekoizpen propioak ere badituzte.

Adibide da, esaterako, taldearen bigarren lana, *Gure doinuak*. 2017an aurkeztua, eta K estudioan ekoitzia. Lanak Kutxi Romero, Alerta Gorria eta Kaotiko taldeen laguntza izan zuen. Abesti gehienak euskaraz diren arren, badituzte gaztelarazko abestiak ere; gai sozialak lantzen dituzte, gehienbat.

Egubakoitzeko musika eskaintzari amaiera emanaz, Streetwise taldeko iruindarrek ere emanaldia eskainiko dute Andramaixetan. Taldeak *Street Oi!* abestia estreinatu berri du, kontzertuz kontzertu taldea jarraitzen duten zaleei eskainitako lan berezia.

## Asteburuan murgilduta

Egubakoitzekoak ez bezala, zapatuko kontzertuak "nahiko azkar" lotu zituztela azaldu dute Gatza City Crew-ko kideek. Hala, zapatu gauean ere dantzarako aukera ugari izango dira. 23:00etan hasita, Parrapas erromeria taldea arituko da taula gainean. Eibarko eta Ermuko

bost gazte osatzen dute. Errepertorio zabala dute, erromerietan entzuten diren abesti tipikoz osatua, baita estilo desberdinetakoak, eta, gainera, abestiak euren erara moldatzen dituzte. Jarraian, The Big Mac DJek girotuko dituzte jaiak. Bi aretxabaletarrez osatutako DJ bikoteak, diskoak jartzeaz gain, umorearen bitartez ondo pasatzeko aukera eskaintzen du. Orokorrean, musika elektronikoa izango da entzungai, baita house, drum-and-bass eta db step estiloko abesti dantzagarriak.

## Azken egunean, Mexikoraino

Los Renampas Y El Mariachi taldeak boskote formatuan eskainiko du emanaldia domeka arratsaldean. Jaietako amaiera emateko, talde nafarrak Mexikoraino eramango ditu entzuleak, 18:30ean.

**"KONTZERTUEK HARRERA ONA IZATEN DUTE URTERO ETA AURTEN ERE HORIXE ESPERO DUGU"**



# Gatz Bidea, jaietara iristeko beste modu bat

Leintz Lotzen ekimeneko kideek sustatuta, Eskoriatzako plazatik 10:00etan abiatuko dira hainbat lagun, Gatz Bidea hartuta, Leintz Gatzagaraino. Eskoriatzarrez gain, urtero moduan, Otxandiokoek ere parte hartuko dute, "giro paregabean", ekintza horretan

**Jone Olabarria** LEINTZ GATZAGA

"Duela urte batzuk, Eskolore ibilbideak egin zituen Eskoriatzako lantalde batek, eta Leintz Gatzagara heltzeko PR-100 delakoa markatu zuten". Hala sortu zen egun Gatz Bidea izenez ezaguna den proiektua. Leintz Lotzen taldeko kide Dorleta Elkorobarrutiak honela azaldu du: "Izugarrizko aukera ikusi genuen gatzagako mugikortasunerako, eta, nola ez, bailara lotzeko".

Ordutik hona, ekintza ugari egin dituzte bidea ezagutzera emateko, baita bidearen konponketa eta halako aldarrikapenak egiteko; betiere, bailarako hainbat talderen laguntzarekin –kirol elkarteak, erretiratuak, gazteak, kulturalak...–.

Hain zuzen, ekintza horien artean dago jaietarako prestatutako ibilbidea: "Eskoriatzako plazatik 10:00etan abiatuko dira hainbat lagun, Gatz Bidea jarraituz Gatzagaraino iritsiz. Otxandiotik ere, urtero bezala, Dorleta egunean, oinez etorriko dira, Jarindo ingurutik".

## Aspaldiko ohiturari eutsi

Belaunaldiz belaunaldi herri bietatik gerturatu izan dira Gatzagara irailaren 8an herritarrek, eta, Elkorobarrutiaren esanetan: "Orain aukera hau izanda, eskoriatzarrei eskaintzea ezinbestekoa zela iruditu zitzaigun eta jaietako programan jartzea erabaki genuen".

Otxandioarren kasuan, "urteetan mantendu duten tradizio bat izan da oinez etortzearena", eta, hain zuzen, ohitura hori "eskoriatzarrei eta bailarako gainontzekoei" ere luzatu nahi izan diete.

Azken urteetan, baina, errepidetik pasa gabe, oinez etortzerik ez zuten herritarrek. "Aukera izan dugun momentuan zabaldu dugu eta bailarako bizilagunentzat familian ingurumenaz gozatzeko aukera luzatu".



Herritarrek, iaz, Gatz Bidean zehar herrira bidean. GOIENA

## "GURE BAILARAKO BIZILAGUNAK GONBIDATZEN DITUGU, HERRIA ETA INGURUA EZAGUT DEZATEN"

### Harrera "itzela"

"Aurten ere etortzera gonbidatzen ditugu gure bailarako bizilagunak. Gerturatu oinez gurera; herria eta inguruak ezagutzeaz gain, harrera ederra egingo zaie eta jai giroan eguna pasatzeko aukera paregabean izango dute". Gainera, oinez doazenek autobusez jaisteko aukera izango dutela kontatu dute, badaezpada, "eguna luzatzen bazaie".

### Aldarrikapenez beteta

Hurrengo pausoa bidea hobetzea dela azaldu dute; izan ere, toki askotan "izugarrizko zuloak daude eta lokatz asko sortzen da". Nahiz eta PR-100 bezala markatuta dagoen, hobetzeko gauza asko dituela adierazi dute: "Konponketak ere, ahal izan dugun neurrian, auzolanean, boluntarioekin... guk landu dugu,

baina udalen eta Aldundiaren laguntza eskatzea tokatzen zaigu orain". Gatz Bidea "herritarren eskubidea" dela adierazi dute, eta haren aldeko apustu irmoa egin beharra azpimarratu. "Gatzagako eta Eskoriatzako udalek ahal duten neurrian hobekuntzalan batzuk egin dituzte, baina oraindik lan handia geratzen da egiteko".

### Festa giroan, gustura

11:30ean, Gatz Bidea jarraituz herrira iristen direnei ongietorria egingo diete, eta salda banatuko dute. Bazkaritarako paella-jana izango da, eta bertan geratzeko gonbidapena ere egingo diete gatzagarrek gerturatzen diren guztiei.

Arratsaldean, 17:00etan hasita, otxandiarren eta gatzagarren arteko lehia izango da. Hala, bi herrietako parte hartzaileak hiru jokotan lehiatuko dira: sokatira, boloak eta dokea. Azken urteetan "arrakasta handia" izan duen ekintza dela kontatu dute, eta aurten ere hala izatea espero dute. Egunari amaiera emateko, 18:30ean, Los Tenampas Y Mariachis taldeak kontzertua eskainiko du.

## 'Burutik jota', Trokolo teatro taldearen zirku emanaldi zoroa

Zapatuan, 12:00etan, haurrek eta nagusiek Trokolo nafarren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute

**Jone Olabarria** LEINTZ GATZAGA

"Zirkuko pista zikin batean, artistak ez dira agertu eta emandialdia bertan behera geratzeko arriskuan da". Hala emango diote hasiera Trokolo taldeko nafarrek *Burutik jota* izeneko ikuskizunari.

Zapatuan, hilak 7, izango dute haurrek eta nagusiek *Burutik jota* emanaldiaz gozatzeko aukera. Hala, Fulanito eta Menganito pista garbitzeaz arduratuko dira, euren "umore berezia" taula gainera eramanez. Bi garbitzaileen pertsonaiez gain, Herculan indartsuak ere parte hartuko du zirkuan, eta Acroketa akrobata bitxiekin ere partekatu beharko dute zirkuko pista.

### 30 urtetik gorako ibilbidea

30 urtetik gora daramatza Trokolo teatro taldeak, talde pro-



*Burutik jota* ikuskizuna. TROKOLO

fesional gisa, umorea eta algarak taula gainera eramaten. *Clown-a*, kabareta eta zirkua nahastu ohi dituzte, eta, modu horretara, edozein publikorentzat zuzendutako ekoizpen propioak sortu.

## Andramaixak girotzeko, kintoen jolasak eta bolo txapelketa

Jaietako klasiko bilakatuta, kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte zapatuan, baita bola-jokoa egubakoitzean

**Jone Olabarria** LEINTZ GATZAGA

Laugarrenez antolatu dituzte kintoen arteko jokoak Leintz Gatzagako jaietan. Oraingoan, bost taldek parte hartuko dute eta jolas ezberdinetan nor baino nor gehiago aritu beharko dute. 2016an egin zituzten lehenengoz kintoen arteko jokoak, "herri afari aurreko giroa berotu eta jendea animatzen joateko asmatan", eta, azaldu dutenez, orokorrean, harrera oso ona izaten dute.

### Emakumeak, gero eta gehiago

Bola-jokorik ere ez da faltako, urtero moduan, Leintz Gatzagan. Egubakoitzean gaueko hamaitan hasiko dira euren abilezia erakutsi nahi dutenak jokoan. Juanito Bengoa alkateak azaldu duenez, 50 parte hartzaile inguru espero dituzte; horietatik 10 bat, emakumezkoak. Azken hauen



Haurrak bola-jokoa, iaz. GOIENA

parte hartzea "urtetik urtera handiagoa" dela azaldu du eta datozen urteetarako "ere bide beretik jarraitzea" espero dutela kontatu du. Hala, lehen lau postuetan sailkatzen direnek 150 euro arteko diru saria edota urdaiazpikoa eskuratuko dute.



laz, Apotzagako goitibehera jaitsieran, Jose Angel Urrutia, erori berri zen parte-hartzailearengana gerturatzan. IMANOL SORIANO

## Zazpigarren edizioan, Jose Angel Urrutia gogoan

Euskal Ligarako puntuagarria izango den Apotzagako goitibehera jaitsiera zapatuan izango da. 15:00etan hasiko da eta zazpigarren edizioa berezia izango da; izan ere, Jose Angel Urrutiaren memoriala egingo dute sari banaketa aurretik

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioak, Eskoriatzako Udalak, Eskomotorrek eta Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak eta bestelako boluntarioek elkarlanean antolatuta, Eskoriatzako goitibehera lasterketa egingo da bihar, zapatua.

Aurtengoa zazpigarren edizioa izango da, Euskal Ligarako puntuagarria, eta, urteroko ibilbidea errepikatuz, kilometro eta 400 metroko jaitsiera egin beharko dute parte-hartzaileek; hau da, Apotzagako merendotik Intxaurtxueta auzoraino. Guztira, 50 pilotuk hartuko dute parte.

### Zitzu bizian jaisteko prest

Urtero moduan, zenbait mota-tako goitibeherak hartuko dute parte lasterketan: *drift trike*, pneumatikoak, arinak... eta, jaitsiera 15:00etan hasiko den arren, aurretik ibilgailuen egiaz-tapenak egingo dituzte: 13:00etan, egiaztapen tekniko eta admi-

nistratiboak; 14:30ean, egiazta-pen kontrolaren itxiera; 14:40an, onartuen zerrendaren aurkezpena; 14:45ean, erremontea; eta 15:00etan hasiko da proba. Amaiera, berriz, 19:00 aldera izango da.

### Urrutiaren memoriala

Aurten, gainera, hitzordu berezia izango da; izan ere, 56 urte zituela minbiziak jota ekainaren 15ean hil zen Jose Angel Urrutia eskoriatzarra izango dute gogoan. Beste zenbait kirol ekintzatan antolakuntza lanetan ibili arren, Eskoriatzako goitibehera lasterketaren bueltan lehen lerroan egoten zen urtero. Lasterketa egunean, aurretik zein ostean laguntzeko eta lanerako prest,

## URRUTIAREN OMENEZ TESTU BAT IRAKURRIKO DUTE SARI BANAKETA AURRETIK

boluntarioen laguntza eskertzen, berak egindako lan guztia goraiatu gabe, trukean ezer eskatu barik, lanean gogor. Hala, Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federaziokoek pegatinak egingo dituzte egunerako, parte hartzen duten goitibehera guztietan Angel Urrutia gogoan izateko.

Horrekin batera, arratsaldeko zazpiak inguruan, lasterketa amaitzen denean, sari banaketa hasi aurretik, testu bat irakurriko dute Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldekoek Urrutiari eskerrak emateko, *Partxis* parkean. Urrutia bera gogoratuko dute, eta baita hark egindako lan guztia goraiatu ere; berarengatik sortu zela Eskoriatzako Goitibehera taldea esanez, eta goitibeheren lasterketa urtez urte antolatzeaz batera lagun talde handi bat osatu zuela nabarmenduz. Horrekin batera, Jose Angel Urrutiaren familiakoei elkartasuna adierazteko txapel bat emango diete oroigarri moduan.

## Eguenean hasiko da 'Ostegun Bidaiariak' egitasmoa

21:00etan Zaldibarren egingo dira zenbait herritarrek egindako bidaien kontakizunak, iraileko hiru eguenetan

### I.B. ESKORIATZA

Datorren urtera begira oporrak prestatzen hasi nahi duenak aukera aparta izango du *Ostegun Bidaiariak* egitasmoarekin. Zenbait herritarrek beraien bidaien kontakizunak egingo dituzte, beste urte batez, eta aurtengo kontakizun guztiak Zaldibar antzokian izango dira.

Iraileko hiru eguenetan egingo dira kontakizunak: Asia hego-ekialdean dagoen Thailandiara hilabetez egindako bidaiari-irailaren 12an-; Alpe italiarrak autokarabanan eta bizikletan

–irailaren 19an– egindakoa; eta Txilen, Andean eta Mendoza-tik Patagoniara –irailaren 26an– egindako bidaien kontakizunak egingo dituzte zenbait eskoriatzarrek *Ostegun Bidaiariak*-en edizio honetan.

Hizlariak bakarka edo taldean igoko dira oholtzara, eta bakoitzak bere modura egingo du kontakizuna. Horretarako, bideoak erabiliko dituzte, argazkiak erakutsi, eta beraien bidaiari izandako esperientzia bertatik bertara kontatuko diete bertan batzen direnei.

## Datorren astean ate irekiak izango dira Manuel Muñozen

Irailaren 11n, 12an, eta 13an, ikasturtean zehar eskainiko diren ekintzak probatzeko aukera izango dute herritarrek Manuel Muñoz kiroldegian. Pilatesa, body tonoa, hipopilatesa eta indoor txirrindularitza izango dira egongo diren aukerak. Informazio gehiago nahi duenak dei egin dezake 943 71 53 28 telefono zenbakira.

## Geltoki berria Bergaratik Eskoriatzara

Astelehena ezkerreko, geraleku berria dago Bergaratik Eskoriatzarako noranzkoan, Ozaetan. Lurraldebusak adierazi moduan, gaurtik aurrera, DG10 lineak Ozaetan –Labegarrietako zuzena– bi noranzkoetan egingo ditu geldialdiak. Orain arte, Eskoriatzatik Bergararako noranzkoan bakarrik egiten zuen geldialdia autobusak.



I.B.

## Udaltzaingoak auto berria du

Eskoriatzako udaltzainek auto elektrikoa estreinatuko dute. Etorkizun jasangarriagoa eskaintzeko helburuarekin egingo dute aldaketa, eta beharra ere bazutelako. Uztailaren 29an iritsi zitzaizen Citroën Berlingo berria, eta, hain zuzen ere, 25 urtez izan duten Ford Courier auto zaharrari erreleboa eman diote.



Torrebaso pasealekuko komunak jartzeko, hoditeria eta argiteria lanekin hasi dira aste honetan. IMANOL BELOKI

# Komunak jartzeko lanak hasi dituzte Torrebason

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek gastuak erdi bana egingo dituzte, eta komun publikoak jolas-parkearen alboan joango dira. Astelehenean, hoditeria eta argiteria lanekin hasi ziren, eta lan horietan bi-hiru astez arituko dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatza eta Aretxabaleta lotzen dituen eta Torrebasotik pasatzen den bidegorria bailarako biztanleek, batez ere, bi udal horietakoek, asko erabiltzen duten azpiegitura da. Fagor-Ederlanera oinez edo bizikletan joaten da jende dezente lanera, Almen-Arizmendi Ikastolara joateko ere gazte askok erabiltzen dute, eta kirola egiten zein paseoan beti ari da norbait Eskoriatzatik Aretxabaletarako noranzkoan zein alderantziz. Bertan dagoen berdegunean iturria, atsedean hartzeko eserlekuak, mahaiak, metalezko egitura eta egurrezko elementuekin egindako zubi mugikorra eta tirolina daude, eta jolas parkea, zuhaitz handiz inguratuta dagoenez, gustuko espazioa da herritarrentzat. Hori horrela, herritarren eskaerari erantzunez, komun publikoak ezarriko dituzte bertan, industrialdera sartzeko bidea hasten den biribilgunearen alboan, jolas parketik gertu.

Jende askok erabili arren, bide osoan ez dago komun publikorik, eta zerbitzu hori egotea eskatzen dute bidegorriaren erabiltzaileek. Hala, herritarren eskaerari erantzunez, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek elkarlanean adostu duten proiektua izan da, eta bidegorriaren erabiltzaile guztien beharrak asetzeko helburuarekin jarriko dituzte. Astelehenean hasi zituzten horiek jartzeko lanak.

**Lanak, astelehenean hasita**

Torrebaso pasealekuan komun publikoak jartzeko, komuna erosi, obrak egin eta komunaren mantentze-lanak egiteko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalen arteko hitzarmena otsai-

**HERRITARREN  
ESKAERARI  
ERANTZUNEZ, KOMUN  
PUBLIKOAK JARTZEKO  
LANAK HASI DITUZTE**

leko osoko bilkuran onartu zuten aho batez, eta aste honetan abuztuko oporraldia amaitu bezain pronto hasi dituzte lanak.

**Hoditeria jartzen**

Lehenengo pausoa hoditeria eta argiteria ezartzea izango da. Horretaz Excavaciones Arrasate enpresa arduratuko da, eta, astelehenean hasita, bi edo hiru aste iraungo dute lan horiek. Ur fekalen hustubidea eta konketarako ur garbia jartzeko hoditeria ezarriko dute bertan. Lehenengo pausoko lanak amaitzen dituztenean, hurrengo pausoa komuna jartzea izango da.

**Gastuak, bi udalen artean**

Lizitazioaz eta erosketa egiteaz Eskoriatzako Udala arduratu da, Eskoriatzako lurak direlako, baina gastuak erdi bana egingo dituzte bi udalek. Aurreikuspenen arabera, lanen aurrekontua 55.000 eurokoa izango da.



I.B.

## Obrak Mendiola eta Lete artean

Eguaztenean hasi zituzten Mendiola eta Lete bitartean dagoen bidearen konponketa lanak. Hain zuzen ere, bideko zati bat hondoratuta dago, eta, auzotarren eskaerari erantzunez, bide zatia kendu eta hormigoia botako dute berriro. Aurreikuspenen arabera, bi aste iraungo dute lanek, eta bidea itxita egongo da.



I.B.

## Auzotarren bazkaria Mazmelan

Mazmelako auzotarrek sanbartolomeak ospatu zituzten pasa den zapatuan. Mikel Ortueta eskoriatzarrak elizako kanpaiak jo zituen egunari hasiera emateko, eta gero, txikiteoa egin zuten herrian. Bazkaltzeko 50 lagun inguru batu ziren auzoko Basauria elkartean, eta, bazkalostea girotzeko, trikitiarekin girotutako erromeria izan zuten. Iluntzean, herrian jarraitu zuen festak.



# Afrikan "hezkuntza bultzatzea da ardatza"

Anelkarrek Kongon eta Senegalen dituen hezkuntza proiektuak aurrera doaz. Bitor Arbulu aurtengo maiatzean izan da Kongoko hego-ekialdeko Kansenia bailaran eta hezkuntzan jarria dutela proiektuaren ahalegin handiena azaldu dio GOIENARI

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Aurtengo maiatzean izan da Anelkarreko kooperante Bitor Arbulu Kongon dituzten proiektuak zuzentzen eta jarraipena egiten. "Geure proiektu nagusia hango hezkuntza da. Hango maisuei laguntza eman gura diegu. Izan ere, bailaran 60 maisu daude eta Gobernuak hogeitaz hamar ingururi soilik ordaintzen die soldata. Gure proiektuko diru eta ahalegin gehiena hango maisuei laguntzeko izaten da", argitu du Bitor Arbuluk.

Orain urte batzuk, baina, beste erronka bati heldu zioten: bailarako herriak urez hornitzea. "Bailarako ur-sarearen proiektua amaituta dago eta herri guztietan dago gaur egun ur-putzu bat", dio Arbuluk. Eta bailararendako oso garrantzitsua izan dela azpimarratu du. "Gainera, hango Gobernuak ere konpromisoa hartu du eta ur-putzuak herri guztietan egiteko inbertsioan ere lagundu du".

**Neskendako bizilekuak**

Bai Kongon eta baita Senegalen ere, emakumezkoendako bizilekuak egitea eta sustatzea du orain erronka Anelkarrek. "Kongon bi erresidentzia ditugu. Helburua da emakumei leku



Kongoko Kansenia bailarako eskola bat. ANELKAR

## KONGOKO KANSENIA BAILARAN 60 IRAKASLE DAUDE ETA HOGEIK SOILIK DUTE SOLDATA BAT

seguru bat ematea bertan lo egin dezaten eta euren ikasketekin jarraitzeko aukera eta babesa izan dezaten. Hala, bigarren mailako ikasketak egiten ari diren 20 bat neskari laguntza ematen diegu Kansentian".

Hain zuzen, Senegalen bizileku bat eraikitzea da aurtengo asmoetako bat. Proiektuari jarraipena Kristina Bakaikoak egingo dio. "Emakumezkoen hezkuntzan ahalegina berezia egin gura dugu".

**Inplikazioa, ezinbestekoa**

"Gurasoei eta herritarrei eskatzen diegu trukean zenbait lanetan inplikatzeko. Gauzak ez direla musu-truk lortzen jakin behar dute". Hala, eskolak eraikitzeko adreiluak egiten edo errepideak egiten laguntzen dute.



'BIELAYTIERRA.COM'

## Biela y Tierra proiektua, herrian

Elikadura burujabetzaren aldeko ekintzaileak Pikunieta baserrian izan dira. Ana Santidrian –Ingeniaritza Kimikoan eta Ingurumenean doktorea– eta Edurne Caballero –biologoa– ekainaren 1ean atera ziren Zaragozatik, eta, geroztik, pedalei emanez 1.888 kilometro egin dituzte gurpil gainean. Azken geldialdia Antzuolako Pikunieta baserrian egin dute.

## Oinarin taldeak parte hartuko du Aiherrako kabalkadan

Hilaren 22an eta 29an, kabalkada egingo dute Aiherran. Bertan parte hartuko du Oinarinekin. Ikuskizunean, kantua, dantza eta antzerkia izango dira nagusi. Autobusa egongo da bertara joateko eta sarrerak salgai daude jada udaletxean. Lehen saiorako azken izen-emate eguna hilaren 15a da; bigarreneko, hilaren 22a da azken eguna.

## Elkarretaratzeekin jarraituko dute erretiratuek

Udako etenalditxoaren ostean, Antzuolako erretiratuek eta pentsiodunek elkarretaratzeekin jarraituko dutela azaldu diote GOIENARI. Hala, irailaren 9an, astelehena, egingo dute elkarretaratzea, udaletxe aurrean, eguerdiko hamabietan. Bertan parte hartzeko dei egin diete adin guztietako herriko gizeei eta emakumei.

## 1.212 euro Kongora eta Senegalera

Aurtengo Elkartasun Festan ere herritarren elkartasunak ez du hutsik egin. 38 patata-tortilla egin zituzten, eta pintxotan jan zituzten denak. Tortilletako lau, gainera, Bergarako Ndank Ndank elkartekoekin eraman zituzten.

1.212 euro batu zituen Anelkarrek Kongorako eta Senegalera; Ndank Ndank elkarteak, 250 euro.



Zurrategi plazan herritarrek pintxoak dastatzen. JABI ETXANIZ

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



Udaleko brigadako langile bat Gabiriako tunelean, martitzean; goian, inpermeabilizazioarako oihal berriak. JOKIN BEREZIARTUA

## Eragozpenak arintzeko abuztuan tunelari heldu, baina hornitzaileak kale

Gabiriako tunela inpermeabilizatzeko oihalak berandu eta gutxi heldu ziren abuztuan eta horregatik oraindik ez dago irekita, baina Udalak "ahalegin guztiak" egingo ditu San Martin jaietarako erabilgarri egon dadin; beste hainbat obra ere egin dira edo amaitzeaz daude

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Herritarren artean ahalik eta afekziorik txikiena eragiteko asmoz, Udalak abuztuko oporrak aprobetxatu ditu hainbat obra egiteko. Esanguratsuen artean dago bergararren artean oso erabilia den Gabiriako tunela. Abuztuaren 6an itxi zuten, tunela inpermeabilizatzeko argiteria hobetzeko eta hornei eusteko lanek eraginda.

Hasierako asmoa zen abuztu bukaerarako tunela irekita izatea, edota, beranduenez jota, irailaren 2rako, baina abuztuan izandako horniketara arazo batzuek irekiera hori atzeratu dute. "Urarena zen arazo nagusia. Lehen fase batean, oihalak jarri dira hormen bi aldeetan eta goiko partean urak bideratzeko, eta bigarren fase batean argiteria hobetuko da eta kanalizazioa egokitu", adierazi du Obra eta Zer-

bitzuetako zinegotzi Juanjo Azulak.

**Oihal gutxi, eta berandu**

Bigarren fase hori San Martin jaien ostean gauzatu beharko dela aurreratu du Azulak, eta dio "ahalegin guztiak" egingo dituztela tunela lehenbailehen irekitzeko: "Oihalak berandu eta behar genituen erdiak heldu ziren abuztuan. Horregatik, presaka ari gara lanean orain eta ahalegin guztiak egingo ditugu lehenbailehen erabilgarri egon dadin", gaineratu du Azulak. Izan ere, ezin da ahaztu irailaren 9an ikasturte berriari egoitza berriaren ekingo diola Miguel Altuna lanbide heziketak (zuzendariari elkarriketa irakurtzeko, ikus 9. orria) eta ordurako tunela irekita izatea komeni dela. Atzo helarazitako ohar baten, Udalak dio "ahalegin guztiak" egingo dituela San Martin jai-

tarako irekitzeko. Geotunel enpresari esleitu zion obra Udalak, 48.109 euroko aurrekontuarekin.


**Hainbat lan Ibargarain barrera**

Ibargarai kalean hainbat lan egin dira abuztuan. Batetik, Miguel Altuna lanbide heziket-

### Ugarte kaleko lanek, hiru hilabete

Industrialdeak berritzeko Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk ematen dituzten dirulaguntzei esker, Ugarte kalean, bidegorri berriaren ondoan, ingurua berriro urbanizatzeko eta azpiegiturak berritzeko obrak hasita daude. Construcciones Artzamendi enpresari esleitu zitzaion obra eta 148.000 euro pasatxoko inbertsioa ekarriko du.

Horniketarako kanalizazioak aldatu egingo dira –burdinurtua jarriko da–; argiteria-puntuak berrituko dira eta leda jarri; eta espaloiak konponduko dira eta galtzadan kapa asfaltiko berria jarriko da, besteak beste. Hain zuzen, lanon helburuetako bat kalearen altuera igotzea, eta horrela bidegorri berriaren ondoko aparkalekuen koska –tarte batzuetan hamar zentimetrokoa– arintzea. Lanek hiru hilabete iraungo dute eta tarte horretan eragozpen batzuk sortuko zaizkie inguruko enpresei, ibilgailuei eta bidegorriaren erabiltzaileei.



Hesia, Ugarte kaleko bidegorrian. J.B.

tako egoitza zaharraren parean seminarioko patioa azpiegiturak egokitzeko eta hobetzeko lanei jarraipena egin zaie eta saneamenduko hoditeria hobetzen dihardute; Herrilagunak eta Ibargarai kalearen arteko lotunea itxita dago oraindik. Hain zuzen, lotunean bertan bost metroko arketa bat egin zuten abuztu hasieran eta oraindik ere oinezkoendako zein autoendako itxita dago. Ibargarain jarraituz, parking publikoa bi egunez itxi behar izan zuten, abuztuaren 19tik 21era, garbiketa-lan "sakonak" egin behar zirelako. Eta, Ibargarai-kalekin bukatzeko, asfaltatze-lan txiki batzuk ere egin dira Palmerako biribilgunetik Ertzain-etxearen arteko tartean; zebra-bide bat berriro asfaltatu zuten Udaleko brigadako langileek.

Horrez gainera, bestelako lan txiki batzuk ere egin dira: Arnerreka kalearen hasieran arketa-tapa bat konpondu dute, Masterreka kalean beste bi arketa-tapa eta Infernuko bidegorutzean ere beste bat konpondu dute. Eta pintaketa-lan txiki batzuk ere egin dituzte: Ibargarai, Zurradero, Bideberri, Artzamendi eta Masterreka kaleetan zebra-bideak eta askotariko seinale horizontalak margotzen ibili dira Bergarako Udaleko brigadako langileak abuztuan zehar.

**"TUNELERAKO OIHALAK BERANDU ETA BEHAR DIREN ERDIAK HELDU ZIREN ABUZTUAN"**

JUANJO AZULA

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.  
943 78 59 54 BERGARA

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
aroztegia@ugarteuroztegia.com

Proiektuak - Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariek neurria  
Ateak - Eskailerak -  
Leihoak - Tarimak -  
Egur lanak

**I21**  
KALITATA

Enpresa Registrada Nº00/025

# Duela 25 urte bidea ireki zuten neskei omenaldia

Bihar, emakumezkoen Bergara Hiria txapelketa jokatu da Agorrosinen (11:00), eta, finalaren aurretik, 13:00etan, 1994-1995 denboraldian sortu zen lehen nesken taldeko jokalariek omenduko dituzte; 17:30ean, berriz, gizezkoen 29. edizioa jokatu da

## Jokin Bereziartua BERGARA

Denboraldi-aurreko klasikoetako bat den Bergara Hiria futbol txapelketa jokatu da bihar. Emakumezkoen txapelketaren bigarren edizioa jokatu da goizean, 11:00etan hasita, eta Elgoibar, Amaiak Bat, Textil Escudo eta Bergara arituko dira nor baino nor gehiago. Arratsaldean, 17:30ean, gizezkoen 29. edizioaren barruan, Bergarak Iurretakoren aurka neurtuko ditu indarrak. Egun osorako sarrera hiru euro izango da; hau da, goizean erosten den txartelak arratsalderako ere balioko du.

## Lehen partidua 2-4 irabazi zuten

Bi txapelketez gain, eta aurrean 25 urte beteko direla aprobetxatuta, 1994-1995 denboraldian emakumezkoen lehen taldea osatu zuten jokalariek omenduko dituzte. Denboraldi hartan, 16 eta 21 urte arteko 33 neska elkartu ziren eta bihar omenduetako bat izango den taldeko Bittor Agirrebarrenak gogoan du 25 fitxa bakarrik egiteko aukera izan zutela: "Jokalariek batzuek ezin izan zuten fitxa egin, pena izan zen. Gero, gogoratzen dut lehen partidua 2-4 irabazi genuela, Intxaurren; neskek izugarri poztu ziren". Garai haietako partiduko guztie-



Elorza, Najera, Larrañaga, Ibarra, Elorza, Agirrebarrena eta Diaz, Agorrosinen. J.B.

tako hamaikakoak eta bestelako hainbat datu interesgarri koaderno batean gordeta ditu oraindik ere Agirrebarrenak: "Informazio hori altxor bat moduan gordetzen dut".

## Egoera aldatu egin da, "zorionez"

Bidea ireki zuten jokalarietako bat da Jasone Larrañaga: "Gauzak aldatu egin dira, zorionez; gu hasi ginenean, oso arraroa zen neskek futbolean ikustea eta orain, erabat normala da. Futboleak bakarrik ez, neskez osatutako hainbat talde daude

Bergaran, eta hori oso pozgarria da. Zenbat eta talde gehiago, hobeto". Talde hartan familia giroa bizi zutela ere badio Larrañagak: "Kuadrillakoak haserretu egiten zitzaizkidan parrandan ere askotan futbolekin irteten nintzelako eta eurekin oso gutxi egoten nintzelako".

BKEko presidente Iosu Elorzak balioan jarri nahi du biharko omenaldia: "Jendeak ezagutu egin behar du gaur egun horren errotuta dagoen egoera ze jokalariek abiatu zuten. Detalle txiki bat emango diegu, merezi dute".



1994-1995 denboraldiko emakumezkoen taldea. BERRIGARA

## Lehen talderako 33 jokalariek batu ziren

Aurrean, 25 urte bete dira futboleko emakumezkoen lehen taldea sortu zela eta BKEko zuzendaritzak efemeridea aprobetxatu nahi izan du bihar jokatu den Bergara Hiria txapelketan omenaldi xume bat egiteko; 13:00etan izango da omenaldia, finalaren aurretik. Talde hura abiatu eta zortzi urtez entrenatu zuen Bittor Agirrebarrenak kontatu dio GOIENARI nola hasi zen guztia: "Atxabalpen Mondraren eta Eibartarrak taldeen arteko partidua bat ikusi ostean proposatu nion nire buruari Bergaran talde bat sortzea. Lagun baten bidez enteratu nintzen Etxagin elkartzen zela neska talde bat futbola gustatzen zitzaiona; lagunari zerrenda bat egiteko eskatu, eta bi astean 33 jokalariek genituen". Jasone Larrañaga jokalariek oroitzen ederrak ditu: "Orduan oso arraroa zen neskek futboleko ikustea, baina sekulako ilusioarekin hasi ginen. Lagun talde itzela osatu genuen".

## Pilota txapelketa gaur abiatuko dute

Bergara Hiria emakumezkoen pilota txapelketaren bigarren edizioa irailaren 6tik urriaren 1era izango da. Aurrean, iaz ez bezala, txapelketa promes mailan bakarrik jokatu da. "Arrazoiak da ekain amaieran Emakume Pilotarien Elkarte (EPE) eratu dela eta eurekin ez dugula akordiorik lortu gure txapelketan joka dezaten. Elkartetik kanpo badaude pilotariak maila nagusian joka dezaketenak, baina oraindik egoera nahiko aldrebestuta dago, ez dugu argi nortzuk dauden eta nortzuk ez, eta informazio zehatza izan arte promes mailakoa egitea erabaki dugu", adierazi du BKEko pilota sailak. Sei bikote lehiatuko dira, bi multzotan banatuta, eta lehen final-laurdenak gaur jokatu dira, Udai Pilotalekuan, 18:30ean hasita. Finala urriaren 1ean izango da, 19:30ean.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

## Kanpokoak bai... baina etxekoa?

Oporrak bukatu dira! Herrian ez ditugun marabilen bila joaten gara, eta baita topatu ere. Baina, aldi berean, bidaiatzea baino ez dago herrian daukaguna gehiago baloratzen. Eta horren adibidea da semearekin gertatutakoa. Tubarekin egindako bidaiaren baten musikari bat gerturatu zitzaion. Organo-jole moduan aurkeztu zen. Kataluniarra, eta bertan bukatutako

ikasketak osatzeko Stuttgarten bizi eta ikasten dagoena. Burgosen egingo zen lehen organo lehiaketa nazionalen parte hartzerantz zetoan. Semeak Bergarako zela esan zionean, Bergarako organo-jotzea bere ametsetako bat zela aipatu zion musikariak. Organo-jole askorentzat Bergarako Stoltz-a Europako onena zela adierazi zion. Tamalez, bere egoera larria

da eta ezin da jo. Semeak etxean entzunda zerbait bazekien, baina ez zuen pentsatzen hain garrantzitsua zenik; herritar askok ez dakite Bergaran dugu altxorra. Triste da, baina kanpoan etxean baino gehiago estimatzen dute; Europako organo onena, adituen esanetan. Jakizue organo-jole gazteak lehiaketa irabazi zuela. Bergarako organo-jole al du inoiz?

## Agorrosin: garbiketa lanengatik, igerilekuak itxita hurrengo astean

Hurrengo astean garbiketa lan batzuk egin behar dituzte Agorrosingo kiroldegian eta horregatik barruko igerilekua itxita egongo da eta kanpoko igerilekua irekiko da 14:00etatik 19:30era, baina aldagela barik. Irailaren 14an, 15ean eta 16an, guztia egongo da itxita. Eta irailaren 17an, jarduerak guztiak jarriko dira martxan.

# Danbor hotsak hasi dira sanmartinak iragartzen

San Martin jaietako feria irailaren 14an izango da, helduen danborrada hilaren 15ean eta umeen danborrada hilaren 16an; bestalde, tradizio handia duen beste ospakizun baten barruan, San Juan auzoko ortuetako produktuak dastatuko dituzte etzi eguerdian

## Jokin Bereziartua BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak hurrengo astean emango du San Martin jaietarako prestatu duen egitarauaren berri, baina bergararrak dagoeneko hasita daude motorrak berotzen. Horren adibide da umeen helduen danborradetarako entseguak astlehenean hasi zituztela; hurrengo entseguak irailaren 9an, 10ean eta 11n egingo dituzte, seminarioko patioan.

Umeen entseguak 19:00etan hasiko dira eta helduenak, berriz, 20:00etan. Era berean, San Martin Agirrerren heriotzaren errepresentaziorako prestaketak ere martxan daude, japoniarrez



Umeen aurtengo lehen entsegu seminarioko patioan, astlehenean. OIHANA ELORZA

mozorrotuko direnak hasita daude eta entseguetan.

## Helduen danborrada, hilaren 15ean

San Martin eguna irailaren 16a izanik, bezperako gauean irten-go da azken urteetan partaide-zari dagokionez nabarmen gora egin duen helduen danborradak. Hala, Oxirondoko azoka irailaren 14an izango da, 09:30etik 14:30era, eta umeen danborrada irailaren 16an.

## San Juango dastatzea domekan

Tradizio handiko beste ospakizun bat da domeka honetan egingo dena, San Juan auzoko ortu ekologikoen lehiaketako produktuen dastatzea. Obieta elkartearen, San Juan Erreka elkartearen eta Tartufo jatetxearen eskutik, goiz-pasa ederra prestatu dute domekarako: ortu ekologikoen lehiaketako produktuen erakusketa eta azoka (11:30); Arrago taldearen kontzertua ermitan (12:00) eta produktu ekologikoen dastatzea (12:30). Dastatzerako plater konbinatua eta tragoa bost eurotan salduko dute eta herriko trikitilariak girotuko dute ospakizuna.

## OHARRAK

### 1944an jaiotakoak

Pasai San Pedrorra joango dira hilaren 28an. Albaola museoa bisitatu eta Pasai San Juanen bazkalduko dute. Izena emateko, 943 76 50 22 edo 943 76 59 78 telefono zenbakira deitu hilaren 19a baino lehen.

### Ludotekak: ate irekiak

Gaur hasi eta irailaren 30era arte, 17:00etatik 20:00etara, ate irekiak izango dituzte Oxirondoko, Angiozarko eta Osintxuko ludoteketan.

### Pirinioetara irteera

Pol-Poleko heteranoak Jacara joango dira asteburu osorako. Bi mendi irteera egingo dituzte; bihar 06:00etan elkartuko dira, frontoian.

### Udal egutegia

2020ko Udalaren egutegirako argazkiak bidaltzeko epea irailaren 25ean amaituko da. Argazkiak Euskara Zerbitzuan entregatu beharko dira: [euskara@bergara.eus](mailto:euskara@bergara.eus).

# ariznoa elkarte

## 2019-2020 KURTZO HASIERA

### Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 4an, 18:00etan, Labegaraletan.

### Aurre-benjaminak I (2014an jaiotakoak):

irailaren 17an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

### Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailakoak):

irailaren 17an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

### Benjaminak (3. eta 4. mailakoak):

irailaren 17an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

### Antzuolako Taldea:

irailaren 25ean, 14:30ean, frontoian.



Iraila osoan zehar ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaitetz gu ezagutzera!

Harremanetarako: [ariznoa\\_ge@hotmail.com](mailto:ariznoa_ge@hotmail.com)





Tor-en eta Txoborro-ren magia ikuskizuna Espoioan. GOIENA

## Udako kultur ekitaldiek harrera "ona" izan dute

Urtero legez, uda honetarako ekitaldi kultural ugari antolatu ditu Bergarako Udalak herriko hainbat plaza eta parketan. Izan ere, herritar asko kanpora joan diren arren, herria 'zaintzen' geratu direnek gustura hartu dute agenda kultural hau

### Amaia Zabala Tolosa BERGARA

Bergarako Udalak antolatuturik, ekitaldi kultural asko izan dira uda honetan ere herriko kaleetan. Uztailean eta abuztuan zehar izan dira ekintza hauek, eta, herritar askok kanpora joateko aprobetxatuz duten arren, ez dira guztiak izan, eta herrian geratu direnek gustura hartu dituzte ekitaldi kultural hauek.

Bergarako Udalak ere kultur agendaren balorazio "positiboa" egin du. Maider Osa Kultur teknikariaren esanetan, parte hartze handia izan dute ekitaldiek: "Jende asko ibili da, batez ere, uztaileko ostiraletan Espoioan Berumuga programaren barruan egindako kontzertuetan. Maila handiko taldeak izaten dira, eta jendeak dagoeneko badaki kalitate aurkituko duela; horregatik, publiko fidela dago eta beste asko, jakin-minez".

### Abuztuko ekitaldiak

Abuztuko ekitaldiei dagokien, batez ere, estilo askotariko kon-

tzertuak eta aire libreko zinema izan dira nagusi. Horretaz gain, magoen emanaldia ere izan da.

Osaren esanetan, abuztuko emanaldiek ere erantzun "ona" izan dute: "Abuztuko emanaldiek ere oso harrera ona izan dute. Azken urteotan bezala, gune desberdinetan egin ditugu eta emaitza oso ona izan da. Aire ahizpak, Urbil Artola & Jon Gurrutxaga, Tor eta Txoborro magoen ikuskizuna, La Jodedera...".

Osak gaineratu du abuztuko ekitaldirik jendetsuenetako bat Artolak eta Gurrutxagak egindako emanaldia izan zela. Egitarauko azken kontzertua izan zen hau, abuztuaren 28an, zehazki, 22:00etan, Fraiskozuri plazan.

### ARTOLAREN ETA GURRUTXAGAREN EMANALDIA, ABUZTUKO JENDETSUENETAKOA

Gainontzeko kontzertuei dagokien, Nafarroa Beheretik etorritako ahizpek euskal folk abestiak eskaini zituzten eta La Jodedera taldeak, berriz, kubatar doinu dantzagarriak eskaini zituen.

Aurten, gainera, eguraldia ere ez da aitzakia izan, ez baitu inongo eragozpenik sortu antolatutako emanaldietan: "Eguraldiak ez digu apenas eragin. Kontzertu eta ikuskizun guztiak iragarritako egun, leku eta orduan egin dira, salbuespen bakkarrarekin: zine emanaldiren bat plazatik plazako arkupeetara pasa genuen, eguraldia okertu egin zitekeelakoan".

### Datorren urtera begira

Bergarako Udalak jakinarazi du datorren udan ere ekitaldi kulturalak antolatzen jarraitzeko asmoa duela: "Herritarrek gustuko dute azken urteotako eskaintza, eta, hasiera batean, ez dugu datorren udaldirako aldaketa nabarmenik aurreikusten".

## Carlos Taibo idazlea kartzela zaharrean izango da

Kartzela zaharreko Angiolillo liburutegiak 10. urteurreneko ospakizunei ekingo die datorren astean

### Amaia Zabala Tolosa BERGARA

Kartzela zaharreko Angiolillo liburutegiak hamar urte bete ditu, eta, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, *10 urte karia emuten* leloarekin.

Lehen ekitaldia irailaren 10ean izango da, Carlos Taibo idazleak *Ante el colapso. Por la autogestión y por el apoyo mutuo* liburua aurkeztuko baitu. Aurkezpena kartzela zaharrean izango da, 19:00etan.

Angiolillo liburutegiak 60 liburu aurkezpen eta beste hainbat hitzaldi antolatu ditu hamar urte hauetan, eta urteurren honetan ere dinamika horrekin jarraitzea dute helburu: "Orain arte bezala, liburu aurkezpenak egiten jarraituko dugu, eta, ahal den heinean, kartzela zaharreko auzoetakoekin txandakatu ditugu. Carlos Taibo bezalako idazle esanguratsuak ekar-

tzen saiatuko gara, baina bertakoak alde batera utzi gabe. Hitzaldi eta aurkezpen gehiago lotu heinean joango gara jakinarazten", dio Aser Polvorosak, ekimenaren antolatzaileak.

### Liburuak askatzeko ekimena

Uztailean, Angiolillo liburutegiak hainbat liburu jarri zituen jendearen eskuragarri herriko hiru puntutan: Irala kalean, Espoioan eta igerilekuan.

Polvorosaren esanetan, ekimenak "arrakasta" izan zuen: "Askatutako liburuen historia oso ondo joan zen, balorazio positiboa egiten dugu. 50 liburutik gora askatu ziren, eta gune arrakastatsuen Agorrosingo igerilekuak izan ziren, bertan askatu ziren liburu gehienak. Aurrera begira, askatutako liburuen ekimena kontuan izateko gauza bat izango da".

## Musika Eskolaren ikasturte berria hastear da

2019-2020 ikasturte berria ate joko dator eta Bergarako Musika Eskola ere hasi da ikasturte berrirako antolaketekin.

Irailaren 4an, esate baterako, instrumentuen eskoletarako ordua hartzeko eguna izango da. Lehenengo mailan hasten direnak izango dira salbuespena, 16:00etan izango baitira eskola guztiak. Gainontzeko

mailak, ordea, zozketatu egingo dira.

Bestalde, Musika Eskolak jakinarazi du hainbat ikasgaitan plazak daudela oraindik, eta, hori dela eta, irailaren 17an, martitzenean, 18:15ean, 5 eta 8 urte bitarteko haurrek hasiberrien abesbatzan egiten dena ikusi eta probatzeko aukera izango dute. Azkenik, edozein ikasgaitan interesa izanez gero, Musika Eskolara hurbildu eta idazkaritzan galdetu besterik ez dago. Orduetgia 15:30etik 19:00etara da.

## Ageriko 46. Simon Arrieta pintura lehiaketa, 15ean

Ageriko 46. Simon Arrieta pintura lehiaketa egingo da Bergaran irailaren 15ean, domekan, San Martin jaien barruan.

Parte hartze librea izango da; hau da, edozeinek hartu dezake parte. Baldintza bakarra da bakoitzak artelan bakarra aurkeztea. Gaiari dagokionez, berriz, Lanak Bergaran eta aire zabalean egin beharko dira eta

teknika eta gaia libreak izango dira.

Lanak egiteko era eta neurriak libreak izango dira. Horretaz gain, librea izango da pinturaren oinarri erabili daitekeen materiala ere, nahiz eta derrigorrezkoa izango den euskarri gogorren aurkeztea.

Epaimahai batek baloratuko ditu lanak eta sariak honako hauek izango dira: "Lehenengo saria 1.000 euro, bigarren saria 410 euro eta, azkenik, lehenengo bergararrari 210 euro.

# KARATE SHOTOKAN KUDO (MMA JAPONESA) KRAV MAGA (AUTODEFENTSA)



## KARATE eta KUDO

ENTRENAMENDUAK IRAILAREN 9AN HASIKO DIRA  
 • ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN  
 UMEAK: 1. TXANDA 17:30ETIK 18:30ERA  
 2. TXANDA 18:30ETIK 19:30ERA  
 NAQUSIAK: 19:30ETIK 20:30ERA  
 • ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN  
 KATAK: 18:00ETATIK 19:00ETARA

## KRAV MAGA

ENTRENAMENDUAK IRAILAREN 10EAN HASIKO DIRA  
 ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN  
 19:00ETATIK 20:30ERA



HARREMANETARAKO DEITU 615 79 90 78 TELEFONORA  
 BERGARAKO.SHOTOKAN@GMAIL.COM HELBIDERA IDATZI  
 EDO BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUKO DBH ERAIKINEKO  
 GIMNASIOAN ENTRENAMENDU ORDUETAN.





Herri eskolako ikasleak ikasgelan, aurreko ikasturtean. ELGETAKO HERRI ESKOLA

# 127 ikasle izango ditu aurten Herri Eskolak

Astelehenean emango diote hasiera 2019-2020 ikasturteari neska-mutiko gehienek. Egun batzuk geroago hasiko dira 2 urteko gelako hamar umeak. Haur eskola ere martxan da; hiru erabiltzailerekin ekin zioten ikasturteari atzo

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Azken opor egunak dituzte Elgetako neska-mutikoek. Astelehenean itzuliko dira ikasgeletara. 2019-2020 ikasturtearen 09:00etan hasiko da.

Elgetako ikastetxeak bederatzita talde izango ditu aurten. Haur Hezkuntzan lau talde izango dira eta Lehen Hezkuntzan bost talde; izan ere, LH 4ko eta LH 5eko ikasleak talde bakarrean elkartuko dituzte. "Azken urteetan gora egin du ume kopuruak, baina iaztik hona ez da askorik aldatu. Iaz, 129 ikasle izan genituen; eta aurten, 127", azaldu du zuzendaritzak.

2 urteko gelan, aurten, hamar neska-mutiko izango dira. Horiak egun batzuk geroago hasiko dira eta egokitzapena egingo dute urrira bitartean. Gainerako ikasleak jardunaldi trinkoa izango dute bai astelehenean bai martitzenean. Jangela zerbitzuko erabiltzaileek 14:30ean amaituko dute bi egun horietan, eta, gainerakoek, 12:30ean Haur Hezkuntzako ikasleak badira eta 13:00etan Lehen Hezkuntzakoak badira. Irailaren 11tik aurrera hasiko dira guztiak ohiko ordutegiarekin.

Irakasle taldea 22 hezitzailek osatuko dute aurten. Ikasturteko erronkei buruz galdetuta, ikastetxea hiru urteko egitasmo

berri batean sartuko dela azaldu du zuzendaritzak. "Egitasmoaren izena da *Haur Hezkuntzan berriazko egitasmo esperimentalak*. Prestakuntza berrikuntza jarduerak eskolan. Berritzegunetik aholkularitza eta formakuntza jasoko dugu eskolan". Ikasturte hasierako guraso bilerak irailaren bigarren hamabostaldian egingo direla jakinarazi dute.

## Haur eskola

Ikasturtea martxan da haur eskola zerbitzuan. Hezitzaileak irailaren 2an hasi ziren haur eskola ikasturte berrirako txukuntzen eta prestatzen. Haurrak, berriz, atzo hasi ziren. Hiru

haur hasi dira. Haur eskola irekita mantentzeko gutxieneko kopurua dela adierazi dute haur eskolatik. Beste familia bat ere gerturatu da haurra matrikulariztera; beraz, lau ume izango dituzte. Hezitzaileak, berriz, bi dira. "Ordutegia ez da oraindik zehatza, familien beharren arabera izaten baita", azaldu dute. Oraingoan, 08:30etik 16:00etara emango dute zerbitzua haur eskolan.

Matrikulazio kanpainari dagokionez, urrian zabalduko da, berez, hurrengo epealdia. Dena den, eta kontuan izanda ume gutxi dagoela, zabalik mantenduko dute izen-ematea bitarteko asteetan ere.

## Goizeko gela, ingelesa eta ludoteka

Hirugarren ikasturtez, goizeko zaintza gela eskainiko du guraso elkarteak eskola egunetan, 08:00etatik 09:00etara. Beharrik balego, 07:30etik ere eska daiteke zerbitzua. Gero eta erabiltzaile gehiago ditu eta egonkortzen doa. Izen-ematea zabalik da [elgetakogurasoelkartea@gmail.com](mailto:elgetakogurasoelkartea@gmail.com) helbidean edo 635 74 08 13 (Virginia) zein 653 72 40 28 (Nerea) telefonoetan. Prezioa da hileko 70 euro, hilerdiko 40 euro eta bost sarrerako bonua 20 euro. Eskolaz kanpoko ingeleseko eskolak ere antolatuko ditu aurten guraso elkarteak. Interesatuak zabalik dute izen-ematea.

Udalak, berriz, eguaztenean zabalduko du ludoteka zerbitzua. Lehen hiru egunetan, gainera, ate irekiak egingo dituzte, 16:00etatik 17:00etara, familiei zerbitzua ezagutzera emateko.

## Baselizek 36ko gerran izandako papera ezagutzeko bisita, bihar

Urrian ekintza gehiago izango dira eta boluntarioak behar dira antzeztutako bisita berezi bat egingo

### L.Z.L. ELGETA

1936ko bonbardaketak gogora ekartzeko hainbat ekintza izango dira aurten ere Elgetan. Bihar, zapatua, bisita gidatu berezia egingo dute, gerra garaian San Roke, Salbador eta Asentzio baselizek izandako protagonismoa azaltzeko. Nerea Villak aurreratu du San Roke ehorzketagunea izan zela. "Mairu ugari lurperatu zituzten bertan, baina kristau lurretatik kanpora. Hau da, hilerritik kanpora". Salbador ermita Irrintzi bataioiaren metraileta eta mortero postua izan zen eta biltegi moduan erabili zuten. Asentzio, berriz, gudarien esku egon zen hasieran, baina laster eskuratu zuten frankistek. "Asentzio ere arma biltegi izan zen, gehienbat". Bisita gidatua 10:00etan abiatuko da, plazatik, eta hiru bat ordu iraungo du.



Gudariak Salbador baselizan. L.Z.L.

### Boluntarioak urrirako

Urriaren 6an, antzeztutako bisita gidatua egingo dute. 1936ko bonbardaketak hasi aurreko umeak irudikatuko dituzte; 30 bat boluntario behar dira: gizonak, emakumeak, haurrak, helduak... Izen-ematea zabalik da.

## Zebra-muskuilu ale berriak aurkitu dituzte Aixolan

Martxoan atzeman zuten lehenengo ale bat Aixolan. Ur maila jaitsi eta behaketak egin dituzte ordutik Ur Partzuergoak eta Ura Agentziak. Hala, abuztuaren 28an beste bost ale heldu aurkitu dituzte. Larben presentzia ere konfirmatu dute. Urtegi hormako bi bazterrak aztertutako ale horrekin batera errekan hainbat eremu urte-

gitik behera. Errekan ez dute, oraingoan, arrastorik aurkitu. Ondorioa da espeziea ugaltzen hasita dagoela Aixolan. "Erritmo nahiko azkarrean, gainera", esan du Ura Agentziako teknikari Fran Silvanek. Atzemandako aleek 5,22 milimetroko neurria dute; maiatzean edo ekainean jaiotako aleak dira. Beharrezkoa izango da kontrol lanekin jarraitzea. "Uraren analisi genetikoak, larben kontrolak –urtean lau– eta ale helduen kontrolak –urtean behin– egingo ditugu".

## Tonky Blues Band Ozkarbi elkartearen hilaren 15ean

Tonky de la Peña gitarrista eta abeslari madrildarra eta Paul San Martin pianista donostiarra Elgetan izango dira hurrengo asteko domekan. Ozkarbi elkarteak eta Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak gonbidatuta, 12:45ean egingo dute ordubeteko inguruko kontzertua. Nazioarteko mailako musikariak dira. Sarrera bi euro da.

## OHARRAK

### Erretiratuak Errioxara

Xalbadorpekin irteera antolatuta du Errioxara irailaren 18rako. Bihar eman behar da izena Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:00etara. Prezioa 30 euro da.

### Podologoia

Abuztuko etenaren ostean, hilaren 19an izango da erretiratuendako kontsulta. Txanda hartzeko, deitu egin behar da: 943 76 80 77 (Nati).

# Berdegunea desagertuta, teilatuak du lehentasuna

Inpermeabilizatu egin behar dituzte kantxa berdeko eta frontoiko teilatuak, eta lehenengoko lanak bukatzen ari dira, datorren astetik aurrera kantxa erabilgarri egon dadin. Igerilekuen ondoko berdegunean lurra kendu dute eta hutsunea ikusten da

## Oihana Elortza OÑATI

Bi puntu ezberdinetatik hasi dituzte Zubikoa kiroldegia era-berritzeko eta handitzeko lanak: kantxa berdeko teilatutik eta igerileku ondoan zegoen belarditik. Berdeguneko lur guztia kendu egin dute eta zulo handia ikusten da han orain. Teilatuetako lanak egiteko, berriz, garabia dute jarrita kiroldegi aurrean.

## Denboraldi berrirako prest

Abuztuaren lehen hasi zituzten lanak, eta, aurreikusita zegoen moduan, eraikinaren kanpoko lanekin hasi dira. Kantxa berdeko teilatua konpontzen ari dira, batetik. "Konpondu beharrean dago eta horretan dihardute; itoginak kentzen, esaterako. Ura ez iragazteko lanak ari dira egiten, besteak beste. Frontoiko teilatua ere egingo dituzte, baina lehentasuna kantxa berdekoak du. Eredu hori kirol talde askok erabiltzen dute, herritar askok, eta, kirol denboraldia hastear egonda, ahalik eta azkarren egon behar du erabilgarri. Orain arte, 19:30etik aurrera erabili ahal izan dute kantxa, baina datorren astetik aurrera betiko moduan erabiltzeko moduan egongo da. Entrenamenduak eta partiduak betiko moduan egiteko prest egongo da espazio hori datorren astetik aurrera", azaldu du Maitte Antonek, Kirol zinegotziak. Teilatu horretako lanak bukatu ondoren, frontoikoa konpontzen hasiko dira.

Eraikin zaharrari berria erantsiko zaion aldean, berriz, berdegunea zegoen tokian, lurra atera dute eta zundaketa lanak egiten ari dira. Aldapa zegoen aldean ari dira egiten lan horiek; 25 zundaketa egin behar dituzte eta horietatik hamar egin dituzte orain arte. Beheko aldean, zimentazio lanak egiten ibili ziren joan den astean eta horiek



Berdegunea zegoen tokian lanean. O.E.

## URTEA BUKATU BITARTEAN, KIROL ZERBITZU GUZTIAK EGONGO DIRA ZABALIK ZUBIKOAN

osatzen dihardute orain. Gune horretan beste eraikin bat egongo da gero, goian igerilekua izango duena eta behean hiru fitness gela.

## Zerbitzu guztiak erabilgarri

Urtea bukatu bitartean, kanpoko lanak egiten jarraituko dute. Datorren urtean, 2020an, hasiko dira kiroldegi barrua berritzen. Bitartean, Zubikoako zerbitzu guztiak erabilgarri egongo dira. "Tenis pista joateko ohiko bidea moldatu egin behar izan dugu obregatik, eta beste sARBIDE bat egokitu dugu. Baina gune hori ere erabilgarri dago dagoeneko. Aurrez alokatu behar da, eta gero, sarrerakoei esan", dio Antonek.

Ur putzuak, gimnasioa, rokdromo eta kantxak zabalik eta erabilgarri egongo dira urtea bukatu bitartean. Igerilekuetan

urtero egin ohi dituzten garbiketa lanak egingo dituzte hil honen amaieran, eta, horretarako, itxi egingo dituzte astebe-tez, betiko moduan. Herriko jaiak aprobetxatuz, San Migel egunetik aurrera egongo dira itxita: irailaren 29tik urriaren 7ra. Jaiak pasa ostean, berriz irekiko dituzte eta zabalik egongo dira barruko obrak egiten hasten diren bitartean.

## Zatika

Urtariletik aurrera, kiroldegi barruan obrak egin ahala, egun han dauden zerbitzuetako batzuk herriko beste toki batzuetan egongo dira gero, gimnasioa, esaterako, eta behin-behinekoa izango den toki hori non eta nola egokitu aztertzen ari dira orain Udaleko Kirol arduradunak. Baita eremu hezearen ohiko erabiltzaileei, abonatuak, datorren urterako zein aukera eskaini. Bitartean, baina, urtea bukatu arte, kiroldegiak ohiko ordutegi eta funtzionamendua izango du. Datorren astean esaterako, ate irekiak egongo dira gimnasioan eta ur ikastaro eta ekintzetan izena emateko epea zabalik egongo da.

## Udanarako errepidea itxi egingo dute 16an, zubiak konpontzeko

Lau hilabetez egongo da itxita, eta, bitartean, Olabarrietako egoiliarak soilik pasa ahal izango dira

## O.E. OÑATI

Udanako mendatea hasten den puntutik Olakua auzoko sarre-rarainoko errepide zatia itxi egingo dute zirkulaziorako hilaren 16an. Zati horretan Olaran erreka lau aldiz pasatzen da GI-2630 errepidearen azpitik, eta errepide azpiko zubiak konpontzeko itxiko dute errepide zati hori. Olabarrietako egoiliarak, bakarrik pasa ahal izango dira hortik obrek irauten duten bitartean. Bertatik edo inguruko auzo-bideetatik. GI-2630 errepidea zatika konpondu eta itxiko dute.

## Bi fasetan

Foru Aldundiaren ardurapekoa izango da obra. Errepidea irailaren 16tik egongo da itxita. Lanak bi fasetan egingo dituzte: lehenengo fasekoak Udاناتik hurbilen dauden bi zubietan egingo dituzte eta bigarrenekoak,

Artxubi baserria eta Olakuako lehen semafora bitarteko zatian. Fase bietan, egoiliarren ibilgai-luen zirkulazioa auzo-bideetatik desbideratuko dute.

## Autobus linean eragina

Garraio publikoan eragina izango du errepidea ixteak. Arrasate-Oñati-Zumarraga autobus lineari, esaterako, zuzenean eragingo dio. Linea kendu egingo dute lanek iraungo duten lau hilabete horietan eta Arrasate eta Oñati artean soilik beteko da. Bidaiariak Zumarraga-Antzuola-Bergara linea erabili beharko dute, doako autobus aldaketa eskainiz Arrasatera doazen lineak hartuta. Itxierak bi herrien arteko zerbitzuan izango duen eragina ezagutzeko, Lurraldebuseko herritarren arretarako telefonora deitu daiteke (900 30 03 40).

## Irailaren 30erako deialdi berezia egin dute pentsiodunek

Herriko pentsiodunak astelehen guztietan egin ohi dituzten elkarretaratzeak egiten hasi dira berriz, udako geldialdiaren ondoren. "Eskubideak lortu bitartean", astelehenetan elkartuko dira, 12:00etan, Foruen plazan, hilaren 9an salbu. San Migel biharamunean, berriz, kale agerraldia ez ezik, manifestazioa ere egingo dute.



Irailaren 2ko elkarretaratzea. I.U.

## Atzeko kalean eta Arantzazun jaiak dituzte asteburuan

Atzeko kalean, ohiko zinta lasterketarekin hasiko dituzte jaiak gaur, egubakoitza, 17:00etan. Eta domekara bitartean, musika, jolasak eta garagardo dastatzea egongo dira, besteak beste. Arantzazun, bestalde, zapatuan hasiko dira jaiak ospatzen, eta, astelehena barne, auzo bazkaria eta musika saioa egongo dira, adibidez, auzo etxean.

## OHARRAK

### Domekan soroslea azkenekoz Usakon

Domeka da, hilaren 8a, Usakon sorosle zerbitzua eskainiko duten azken eguna.

### Ur txorrotek ordutegi berria izango dute

Martitzenetik, 13:00etatik 21:00etara ur txorrotak aste barruan eta 11:00etatik 21:00etara asteburuetan.



# Oroimena galtzeak dakarrena bistaratzen

Ganbara Faktoriak eta Hots abesbatzak 'Oroimenean' proiektua aurkeztuko dute irailaren 21ean, kiroldegian. AFAGI elkartearekin elkarlanean egindako proiektuak alzheimerren eta endekapenezko gaixotasunen inguruan sentsibilizatu gura du

## Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

*Oroimenean* proiektua aurkeztu du Ganbara Faktoriak; alzheimerren eta endekapenezko gaixotasunen inguruko kontzientzia bultzatzea, horiei ikusgarritasuna ematea eta gizartearen sentsibilitatea landu eta areagotzea helburu duen proiektua. Irailaren 21ean estreinatuko duten ikuskizunarekin borobilduko dute Ganbara Faktoriak eta Hots abesbatzak aipatutako proiektua.

## Kontzertua, Zubikoa kiroldegian

Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan izango da ikuskizuna, irailaren 21ean, 22:00etan. Emanaldian parte hartuko dute Hots abesbatzak, Ganbera orkestrak, Andoni Salamerok –narratzailea–, Manex Alberdik –dantzaria– eta talde teknikoak; guztira, 70 pertsona.

Ikuskizunean zehar erabiliko den musikari dagokionez, euskal musikariek izango dute lekua,



Asteon egin dute proiektuaren aurkezpena, kultura etxean. TXOMIN MADINA

eta pieza batzuk propio proiekturako sortutakoak izango dira; tartean, Junkal Guerrero konpositoreak idatzitako *Taupaka* eta *Etxean* piezak. Gainera, bi pieza horietarako testuak ikuskizunean parte hartuko duen

Andoni Salamerok olerkari eta idazle zumarragarrik idatzi ditu.

Dementia duen pertsona bat izango da ikuskizuneko ardatza: badaki momenturen batean oroitzen guztiak ezabatuko zaizkiola, eta, horregatik, *Oroimenean*

testua idatziko du. Behin idatzita duela, ahaztuak zituen sentimenduak, oroitzenak... gogora ekarriko ditu.

## Bizipenetan oinarrituta

Salamerok azaldu du "zentzu berezia" duela proiektuak, eta "bizipen eta sentipen errealetan" oinarritutakoa dela. "Alzheimerren duen norbait ondoan izan duena eta zaindu duena jabetuko zen bi sentimendu indartsu daudela: beldurra eta maitasuna", azaldu du, eta gaineratu: "Bada, horrek balio du norbera nolakoa den ezagutzeko". "Ezinen eta izanaren arteko talka horretan, izanak gaixoari zor diozun begirunea eta errespetua ateratzen lagunduko dizu", dio Salamerok. Lan hau ildo horretatik abiatuta sortu dela azaldu du zumarragarrik.

## Sentsibilizazio kanpaina

*Oroimenean* proiektua, baina, ez da ikuskizunera mugatuko. Hala, herriko komertzioen laguntzarekin sentsibilizazio kanpaina bat egingo dute irail osoan zehar: "Herriko erakuslehoetan esaldi esanguratsuak egongo dira, sentsibilizazio kanpaina horren barruan", azaldu du Hots abesbatzako lehendakari Edurne Usandizaga Agirrek.

## AFAGIren esker ona

Alzheimerren duen familia artekoen eta lagunen Gipuzkoako elkarteak –AFAGI– parte hartu

du proiektuan. Hala, irailaren 18an, eguaztena, alzheimerren gaineko ponentzia bat eskainiko du AFAGI. Kultura etxean izango da, 18:30ean. AFAGIko lehendakari Koldo Aulestiak esker oneko hitzak izan ditu aurkezpen ekitaldian: "Bihotzetik eman nahi dugu esker ona, maitasunez beteriko istorioa delako". Eskainiko duten ponentzia azalduko dute posible dela alzheimerrekin bizitzea: "Gaurnean zer gertatzen den... azalduko dugu. Izan ere, oroimena galdu egiten da, baina bihotza handitu". Amaitu du esanez gaixotasun gogorra dela baina posible dela aurrera egitea.

## Ikuskizunerako sarrerak

Ikuskizunerako sarrerak 12 euroren truke eros daitezke *Oñati*.eus atarian, txarteldegi digitalean eta Txokolateixan –12 urtetik beherakoek 8 euro–. Sarreraren zati bat alzheimer gaixotasunaren ikerketara bideratuko da. Gainera, ikerketara bideratzeko ekarpen ekonomikoa egiteko aukera ere egongo da kontzertura joan gabe, 0 lerroa aukeratu eta zenbatekoa adierazita.

## IKUSKIZUNERAKO SARRERAK 12 EUROREN TRUKE DAUDE SALGAI OHIKO LEKUETAN

## Helduen danborradan beste talde misto bat egingo da aurten

Helduen danborradako antolakuntzak deialdia egin du: jende berria batu gura dute danborradara; izan ere, beste talde misto batean jotzeko aukera egongo da –18 urtetik gorakoak–. Entseguak Eltzian egingo dituzte irailaren 16an, 18an, 23an eta 25ean –orokorra–, 20:00etan.

Bestalde, nagusien danborradan bandera eramateko aukera ere egongo da –16 urtetik gorakoak–.

Haurren danborradari dagokionez, irailaren 21ean izango da. Dagoeneko hasi dituzte entseguak, Eltzian. Hurrengoak izango dira: irailaren 10ean eta 12an 18:45ean eta irailaren 17an eta 18an 18:30ean.

## Haurren Egunean umeak etxean jasotzeko beharra dago

Irailaren 15ean ospatuko dute Haurren Eguna. Ume dantzariak etxeetan jasotzeko eskaera egiteko azken eguna gaur da, irailaren 6a. "Azken urteetan dantza taldeko haurren gurasoek erakutsitako konpromisoarekin, haur guztiak etxetara banatu ditugu", dio dantza taldeko kide Maite Irizarrek. Horregatik, gurasoak eta familiak "eskertu" gura dituzte; eta baita elkarte gastronomikoak ere, euren laguntzagatik.

14 dantza taldek parte hartuko dute; tartean, Oñatzek. Taldeei ongietorria 10:15ean egingo zaie; eta arratsaldeko alardea 17:15ean izango da, plazan. Iker Isasti izango da alkate txikia.

## Presoen aldeko dantza herrikoian parte hartzeko entseguak

Presoen alde "dantza herrikoi eta erraza" egingo dute irailaren 28an, zapatua, 19:00etan, herriko plazan. "Dantza erraza" izango da, eta parte hartzailea. "Helburua jaien hasieran falta direnak oroitze eta kartzela politika injustua salatzea izango da, honako hau eskatuz: Euskal Herri-ratzea, sakabanaketa amaitzea, kartzela zigorren batuketa, gaixo larrien eta 70 urtetik gorakoek berehalako askatasuna eta graduen progresioa", diote antolatzaileek.

Herritar guztiak animatu gura dituzte dantzan parte hartzera; horretarako, entseguak egingo dituzte Eltzian, martitzenero, 19:00etan.



NIRE USTEZ

MAIALEN SANTOS

## Iraila baino lehen

Egoera zailei aurre egiteko hilabetea izaten da iraila, malkartsua oso. Malkarrak are handiagoak izaten dira ikasle garaian. Zorionez –ez nago honetaz oso ziur–, aurten utzi diot ikasle izateari. Eta ez naiz ni zorioneko bakarra: gurasoak ere zorioneko egin ditudala uste baitut. Azken lau urteetan iraila heldu baino lehen iritsi zaigu amesgaiztoa etxera. Ekainean hasi behar izan dugu hiriburura bueltak egiten, neurritz kanpoko prezio baten truke etxe-zulo ahalik eta txukunena bilatzea helburu. Uztailean egin behar izan dugu etxe-zulo delakoaren lehen ordainketa: *fidantza* izena daraman hori, hilabeteko kuotaren bikoitza ordaintzea exijitzen duena. Iraila iristean –orain bai– hilabeteko kuota ere ordaindu behar izan dugu, hileko lehen egunetan, noski. Eta horrela, hileroko. Eguneroko gastuen aipamena ere ezinbestekoa: autobusak, unibertsitateko kontuak, asteko erosketak... Ikasle garaia bueltatuko ez zaidala ikustea pena da; aurrerantzean gurasoek arnasa lasaia hartuko dutela jakitea, aldiz, poza. Eta bide batez, besarkada bana seme-alaba ikasle gurasoei.

# Atletismoa Biteriko plazara eroango dute

**ATLETISMOA** Arrasate Atletiko Taldea 75. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil, eta bihar, zapatua (17:00), klubeko harrobiak emandako eta kanpotik etorritako zenbait atletak erakustaldia egingo dute; luzera-saltoan eta pertika-saltoan

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Mojategin beharrean, lehenengoz, Arrasateko eta Euskal Herriko atletekin kalean egingo duten erakustaldiarekin gozatu ahal izango dute herritarrek bihar, zapatua (17:00, Biteri plaza): "Mojategin atletekin topaketa bat egitea errazagoa izango litzateke, baina ez genuen halakorik nahi, kalera atera gura dugu atletismoa", adierazi du Jon Ormaetxea klubeko presidentek.

Atletismo *show*-a izango da; izan ere, Arrasate Atletiko taldeko harrobi emankorrek puntako atletak eman ditu: "Guztira, etxeko eta kanpoko 15 atleta inguru izango dira luzera-saltoa eta pertika-saltoa egiten. Biteri plazara ekarriko dugu Mojategiko koltxoneta, eta luzera-saltoa egiteko hareazko zuloa egokitu dugu". Horrekin batera, Ermuko atletismo taldeko ordezkariak 40 metroko luzera duen gomazko zorua utziko diete



Arrasate Atletikoko harrobiak emandako atletak, klubeko ordezkariekin batera. X.U.

arrasatearrei, atletek saltoa egin aurreko korrikaldia modu egokian egin ahal izateko: "Ez da txapelketa bat, erakustaldia da. Garrantzitsua da inork minik ez hartzea, denboraldia amaitu ta daukate eta".

**Puntako atletak, bertatik bertara**

Biterin egongo diren atletei dagokienez, gaur egun Super Amara BAT taldean dabilen Malen Ruiz de Azuak eta Real Sociedad taldean dabilzan Eneko Carras-

calek, Iñigo Uribarrenek eta Istar Dapenak hartuko dute esku –Dapenaren parte-hartzea kolokan dago, bizkarrean kolpe handia hartu zuen-eta uztailen egindako txapelketa batean-. Eta eurekin batera erakustaldian izango dira, baita ere, Arrasateko klubeko ordezkari Alain Egia eta Mikel Agirre: "Alex Agirianok, berriz, ezingo du esku hartu, hura ere min hartuta dagoelako".

Realeko ordezkari gehiago ere egongo dira, baina Espainiako Txapelketa abuztu amaieran egin izanak eragina izan du

kanpoko atleta gehiago ekartzeko orduan. Hala ere, ikuskizuna egongo da, seguru. "Ekimena Ibai-Arterekin batera antolatu dugu, zapatuan Merkemerkaue ere izango delako. Atletismo erakustaldia 17:00etatik 19:00etara egingo dugu".

**ARRASATE ATLETIKOK ETA IBAI-ARTEK ELKARLANEAN ANTOLATUTAKO EKIMENA DA**

**"Polita izango da kalean jardutea"**

**ENEKO CARRASCAL** REALEKO ATLETA

Eneko Carrascal (Real Sociedad) da zapatuan Biterin jardungo duen atletetako bat. Arrasatekoak dio polita izango dela etxekoen eta lagunuen aurrean jardutea. Esperientzia polita izango dela dio.

**Mojategin baino ikusle gehiago izango dituzue Biterin.**

Bai, seguru. Mojategira jende gutxi etortzen da gu ikustera eta, normalean, bakarrik



ENEKO CARRASCAL

entrenatzen gara.

Txapelketetan, berriz, jende gehiago egoten da, baina horiek kanpoan izaten ditugu. Herrian jende asko ezagutzen dugu, eta polita izango da euren aurrean salto egitea; ikuskizuna ematen ahaleginduko gara.

**Zer egingo duzue?**

Guk luzera-saltoa egingo dugu. Normalean, salto hirukoitza egiten dugu, baina fisikoki zorrotzagoa da eta denboraldia amaituta dugu jada.

## Lau gol, astea arintzeko

**FUTBOLA** Herritar gehienak oporretatik bueltan diren honetan, Eibarren eta Mirandesen lagunarteko norgehiagokak balio izan du itzulerako astea arintzeko (2-2). Ez bereziki partidu ikusgarria jokatu zutelako –lehenengo zatia aspergarria izan zen–, baina Atxabalpera gerturatu ziren zaleek, sikiera, lau gol ikusi zituzten.



ARGAZKIAK: XABIER URZELAI

# "Etxean desabantailak desagertu egiten dira"

**MARKEL URIARTE ETA ADIRAN JURADO** ENDUROKO RIDERRAK

**MENDI BIZIKLETA** Irailaren 29an Arrasaten egingo dute Espainiako Openerako puntuagarria izango den lasterketa; Aretxabaletako pilotuak aurrean ibiliko dira

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Arrasateko enduro lasterketako laugarren edizioa antolatuko dute irailaren 29rako, eta aurtengo berritasun nagusia da Espainiako Openerako bosgarren eta azken proba izango dela. Horrek kanpoko pilotuak erakarriko ditu, baina, behingoz, etxekoek ez dute desabantailarik izango.

**Zer moduz doa urtea?**

**Markel Uriarte:** Batetik bestera bizikletarekin [Barre]. Asteburuan Pirinioetan izan naiz lehiatzen, eta atsedean hartu barik Alemaniara noa, bizikleta feria batera. Baina sasoi polita da hau, lasterketa asko daude eta.

**Adiran Jurado:** Ni lesionatuta nabil, orkatila bihurritu dut eta. Orain kendu didate benda, eta hilabete daukat ondo errekupeartzeko. Irailaren 29an irteera puntuatu egon gura dut, bai ala bai.

**Eskertuko da, behingoz, lasterketa bat etxean izatea...**

**M.U:** Lasterketa aurretik bidaia luzerik egin barik, inguruak ezagututa... Kanpora joaten garenean, desabantaila handia izaten dugu, orografia jakin horretara ohituta ez egotearekin batera jaitsierak ere erabat ezezagunak izaten direlako. Lasterketa aurreko eguna erabiltzen dugu ahalik eta jaitsiera gehien egiteko, eta kurba bakoitza buruz ikasteko, eta sarritan, lehortuta hasten dugu lasterketa [Barre].

**A.J:** Eta hemen ez dugu halako arazorik. Ohituta gaude hemengo mendietara, sustrai artean ibiltzera, harri gutxirekin... Arrasaten, lasterketa egunean zirkuitua lokaztuta badago jende asko hasieratik geratuko da atzean. Harri artean ibiltzen garenean, beste batzuek hegan egiten dute.

**Kanpotik jendea etorriko da, baina antolatzaileek bertako pilotuak animatu gura dituzte.**



Markel Uriarte eta Adiran Jurado, eguztaztean, Harmailatik saioan. X.U.

## "MARKA JAKIN BAT ORDEZKATZERAKOAN, GAUZAK ONDO EGITEN SAIATZEN ZARA, IRUDIA ZAIATZEN"

**M.U:** Hori da. Espainiako Openerako proba antolatzeak meritu handia dauka, lana, seguruenik, bikoiztu egin zaielako. Eta pilotuei dagokienez, jada partehartzea ez da Euskal Herriko edo inguruko lurraldeetara mugatzen, Espainiako bazter guztietatik etorriko da-eta jendea. Orokorrean, lasterketako mailak gora egingo du, baina horrek ez du zertan inor baldintzatu, bakoitzak bere mailan goza dezala.

**Markel, iaz Espainiako Opena irabazi zenuen elite mailan; hori presioa da zuretako?**

**M.U:** Bueno, aurten ez nabil Espainiako Openerako proba guztiak egiten, beste lasterketa batzuetan nabil [Pirinioetako Kopan jokatuak hiru probetatik bi irabazi ditu]. Baina Arrasateko lasterketa bai da urteko helburu nagusietako bat. Presio apur

bat izango dut, baina dagoeneko ohituta gaude presiopean lehiatzen, ez da lehenengo aldia.

**Adiran, zuk Arrasateko lasterketa 23 urtez azpikoan kategorian irabazi izan duzu; eta aurten?**

**A.J:** Aurten ere kategoria horretan hartuko dut esku, baina gurako nuke elite mailako sailkapenean ere aurrealdean ibili. Ez nabil Openerako sailkapenari begira, baina Arrasaten ondo lehiatu gura dut.

**Bizikleta zaletasuna da zuendako, baina serio hartzen duzue, eta markak ere ordezkatzan dituzue.**

**M.U:** Aurten, nire kabuz nabil entrenatzen; iaz, entrenatzailearekin ibili nintzen. Baina lan kontuak, bidaiak... ez da erraza nahi beste entrenatzea, neurria hartu behar zaio. Hala ere, aurreko urteotan egindako lan serioa igarri egiten dut aurten ere, eta ikasitako guztia baliagarria zait.

**A.J:** Nik ez dut entrenatzailearik izan, baina etorkizunean gurako nuke seriotasun apur bat gehiagorekin ibili... Azken urte hauetan, Markelengandik asko nabil ikasten, baina bizikleta gainean ondo pasatzea da daukadan helburu bakarra.



Amasgas taldeko Purito, Gatzagan gora. GOIENA

## Rally-zaleendako jaiak egingo du Amasgas taldeak Angiozarren

**AUTOMOBILISMOA** Biharko herri bazkarirako txartelak ballarako hainbat tabernatan jarri dituzte salgai

**X.U.** ARRASATE

Biharko, zapatua, Amasgas Kirol Klubeko lagunek egun osoko jaialdia antolatu dute Angiozarren. "Debagoieneko rally-zale guztiak daude gonbidatuta; helburua da elkarrekin egun ederri igarotzea", diote Amasgas taldeko ordezkariak.

**Angiozarko frontoian**

Jaialdia 12:00etatik 19:00etara izango da. Hainbat ekintza egongo dira; hasteko, herri bazkaria egingo dute, eta, horrekin batera, kirol klubak urte osoan antolatutako argazki lehiaketaren

finala egingo dute -zaleek argazki onenaren aldeko botoa eman ahal izango dute momentuan bertan-. Jaiak girotzen Bergarako trikitilariak izango dira, klubeko pilotuen autoak egongo dira ikusgai, eta umeendako puzgarriak egongo dira. Bazkari txartelak (15 euro) salgai egongo dira Zaratia tabernan (Aretxabaleta), Taupa tabernan (Arrasate), El Rincon De Lola tabernan (Elgeta) eta Beko Tabernan (Angiozar), eta egunean bertan ere erosi ahal izango dira. Batzen den dirua klubaren gastuetara bideratuko dute.

## Euskal Kopako lauko finala Iturripen, hilaren 29an

**SASKIBALOA** Talde moreak oraingo asteburuan hasiko du, Baskoniaren kantxan, denboraldiko lehen helburua

**X.U.** ARRASATE

Oraingo asteburuan hasiko du EBA mailako Mondragon Unibertsitatea taldeak Euskal Kopa-iaz, eurek irabazi zuten Kopa-. Lehen norgehiagoka Gasteizen jokatu dute, Baskoniaren etxean, zapatuan, irailaren 7an (BAKH kiroldegian, 18:00etan).

Hala, Euskal Kopa honetan zazpi talde egongo dira, bi multzotan banatuta. A multzoan izango dira Mondragon Unibertsitatea, Baskonia eta ZAST Zarautz. B multzoan, berriz, Santurtzi, Easo, Goierri eta Ta-

birako Baque. Eta, multzo bakoitzeko lehen bi taldeak sailkatuko dira lauko finalerako.

**Liga urrian hasiko dute**

MUren helburu nagusia, baina, EBAn egongo da. Iaz, liga oso polita egin zuen talde zuri-moreak, eta aurten, koska bat egin gura dute gora Ogararen mutilek. Taldearen bizkarrezurrari eutsiko diote; harrobiko jokariaren oinarrituko da taldea, kanpoko lauzpabost jokalariren laguntzarekin. Sailkapenean aurreko postuetan egon gura dute.

# "Musika estilo askoren nahasketa da nirea"

**HAKIMA FLISSI** MUSIKARIA

Arrasateko Udalak hamaikagarren Kulturate Akustikoak abiatuko du gaur; eta bi asteburutan banatuta, sei kontzertu izango dira areto nagusian, 20:00etan eta doan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Galiziako De Vacas laukoteak zabalduko du lehen asteburua eta Iparraldeko Lumi taldeak borobilduko du domekan; bihar, berriz, Hakima Flissi (Bilbo, 1997) musikaria izango da protagonista.

**Debagoienean lehenengo aldiz izango zara. Gogotsu zatoz?**

Bai, horixe! Uda nahiko lasai joan da, etxean grabazio estudio bat muntatzen jardun dut, abesti-probak egiten ere bai...

**Izan ere, zure ametsa musikari profesionala izatea dela diozu.**

[Barreak] Ez daukat B planik, ez, hori da-eta nire pasioa.

**Bilbokoa zara eta euskaraz ondo hitz egiten duzu, baina izen eta abizenek beste jatorri bat dute.**

Hala da, bai; Aljerkoa dut aita, eta euskalduna ama; orain, aita Parisen bizi da, eta joaten naiz hara bisitan, eta garai batean Aljeriara opor guztietan.

**Londresen hasi zinen musikagintzan; zer dela eta?**

Musika kultura zabala dago han, eta lan egin eta ingelesa ikasteko aitzakiarekin joan nintzen, eta segituan musikari-lagunak egin nituen. Nire kontura kantutak grabatzen hasi eta sareratzten hasi nintzen gero, eta musika eskola batean sartzeko probak ere egin nituen, baina



Hakima Flissi musikaria. JAIME VENEGAS

etxera itzultzea pentsatu nuen, buru-belarri musikan sartzeko. **Internetera igotako kantuek izan zuten eraginik?**

Bai; *Factor X* telebista saiotik deitu zidaten geroago; haurra nintzela, horrelako hainbat saiotan parte hartu nuen, dantzan. 2018an, Euskadi Gazteko make-ta lehiaketara ere aurkeztu nintzen, eta irabazi egin nuen.

**Aterik zabaldu zizun lehiaketak?**

Egia esan, bai; garai hartan, apenas nuen abestirik, eta arrapaladan egin eta bidali nuen bat, eta lehiaketak sortzen ja-

rraitzeko bultzada eman zidan; izan ere, ikustarazi zidan denbora gehiagorekin proiektu onak egin ahal nituela; hortaz, oso pozik eta eskertuta nago. BBK Live jaialdian jotzeko aukera ere eman zidaten.

**Taularen gainean DJ bat lagun duzula igotzen zara. Nor da?**

Bai, bikote formatuan jarduten dugu. Urtebete pasa egin dut Bartzelonako musikari batekin; hark asko lagundu dit, berak sortzen zizkidan melodiak, eta asko ikasi dut harekin. Gaur egun, berriz, Donostiako neska batekin ari naiz, DJ Untalasalarekin, eta harekin joango naiz bihar Arrasatera. Kontzertu batean ezagutu genuen elkar; nire musika gustuko duela esan zidan eta elkarrekin hastea erabaki dugu. *Feeling* handia dugu, eta publikoak igartzen du hori.

**Musika estiloari dagokionez, zela-koa da eskaintzen duzuenak?**

Biharko kontzertuan musika estilo asko entzungo dituzue; *poutpourri* goxo bat izango da.

**Eta zeri kantatzen diozu?**

Bizitzari, maitasunari... mezu positiboak dira guztiak.

**Ikasturte berrirako helburuak?**

LastTour eta Oso Polita ekoiztetxeekin hasi naiz lanean, eta ahalik eta gauza gehien egin gura nuke: bideoklipa, EP bat...



Gasteizko La Trama taldeak kontzertua eskainiko du gaur Sastiñan. LA TRAMA

## Iraileko egubakoitzetan, Sastiña ermitaren ondoan, kontzertuak

La Trama, Aldakan Beltz eta Charlie Cosh izango dira, hurrenez hurren, gaur hasita; guztiak, 19:30ean

**A. Aranburuzabala** ARAMAIO

Gasteizko Xiomara Zugazagoitiak eta Willy Granadosek (Potato, Arawak, Kannabis...) osatzen dute La Trama bikotea. Talde berria da, aurtengo martxoan sortutakoa, aspalditik elkar ezagutzen badute ere. "Orain dela hamar urte, Leroy Sanchezen taldeko kide ginen, baina, taldea desagertu zenean, bakoitzak bere bidetik jo zuen. Halako batean, entsegu lokalean agertu zen Xiomara, jolasean abesti bat grabatu genuen, gustatu egin zitzaigun, eta elkarrekin proiektua abiatzea erabaki genuen".

Ekainean hasi ziren kontzertuak egiten eta harrezkero hamaika egin dituztela dio, pozez: "Harrituta gaude, ezustean harrrapatu gaitu, emanaldi guztietan etortzen zaigu jendea zoriontzera eta eskertzera; ez gara hasiberriak musika kontuetan, eta halako harrera ez da ohikoa".

**Ahotsa eta gitarra**

Urrian edo azaroan, euren kantuekin estudioan sartzeko asmoa dute, baina, oraingoz, *cover* edo beste talde batzuen bertsiokien osatzen dute erreperitorioa. Zugazagoitiak abesten du, Granadosen koru eta gitarraren laguntzarekin. "Denetarikoa daude: Depedro, Metallica, Amy Whitehouse, Bob Marley...".

**Datozen asteetakoak**

Aldakan Beltz seikoteak hartuko du lekukoa Sastiñan datorren astean. Musika beltza oinarri, jatorri, erritmo eta estilo asko batzen dituzte: funka, samba, afrobeat, bluesa, songoa, gospel...; eta horiekin guztiekin, publikoa dantzan jartzen.

Irailaren 27an, Charlie Cosh izango da Mikel Gaztañaga lagun duela; elkarrekin pianoaren, gitarraren eta harmonikaren doinuen gainean abestuko dute.


## LEINTZ GATZAGAKO JAIK 2019

GOIENA TELEBISTA

IRAILAREN 10EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN  
AITOR AGIRIANOK GIDATUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





Ainhoa Agirrezaldegi, Ane Zuazubiskar eta Mainer Arregi. ALBERTO ELOSEGI/GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Gipuzkoako bertsolariak, lehiatzen hasteko prest

Irailaren 14an Oñatin abiatuko da txapelketa, eta, Donostian abenduaren 14an jokatu duten finala bitartean, hamasei saio egingo dituzte; Ainhoa Agirrezaldegi elgetarra, Ane Zuazubiskar arrasatearra eta Mainer Arregi oñatiarra lehiatuko dira

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Joan den maiatzean, Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea jokatzen eta 84 parte hartzailetatik 34k eskuratu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartela; horiei, aurrez txartela zuten hamalau bertsolari batu zitzaizkien. Hala, 48 izango dira.

Zazpi final-zortziren egingo dituzte, eta Oñatin izango da Debagoieneko bakarra; eta Arrasaten egingo dute hiru final-urreetako bat, azaroaren 17an. *Bertsosarrerak.eus* atarian dauka sarrerak eskuragarri.

**Debagoienetik, emakumeak**  
Sailkapen fasean eskualdeko ordezkari gehiago zeuden arren,

Ainhoa Agirrezaldegik, Mainer Arregik eta Ane Zuazubiskarrek lortu zuten txartela. Oñatiarra izango da lehiatzen lehenengoa, datorren astean jaioterriko Santa Ana antzokian, 17:00etan hasita. Gipuzkoako bigarren txapelketa du, eta dena ematera doala dio, nahiz eta gaineratzen duen ez diola bere buruari presio handirik egin gura: "Final-laurdenetara pasatzea gustatuko litzaidake, baina ikusiko dugu. Niretzako, ez da saio arrotza izango, kide guztiak ezagutzen ditudalako, eta herrian kantatzeak alde ona ere badu".

Ainhoa Agirrezaldegirentzako ez da lehenengo txapelketa, baina badira zazpi urte horre-

lakoetan parte hartzen ez duela: "Momentuz, lasai nago; talde polita eta hurbila egokitu zait, gainera. Aurreko saioetara joateko asmoa dut, gaiak zelakoak diren ikusteko. Udan nire kabuz ibili naiz prestatzen eta geratzen diren asteetan ohiko bertso-kideekin elkartzeko asmoa dut. Nire helburua? Ahalik eta ondoen kantatzea, eta gozatzea".

Bertsotan "ahalik eta ondoen egitea eta, aukeran, sailkapen fasean kantatu zuen moduan kantatzea" da Arrasateko Zuazubiskarren asmoa ere: "Taldea polita egokitu zait, Ainhoaren talde berean nago, Ordizian izango naiz, eta poztasuna eta lasaitasuna ematen dit horrek".

## Bergarako erraldoiak Reus-era joango dira hurrengo asteburuan

Reusko 20. erraldioen topaketan parte hartuko dute debagoienarrek Kataluniako hamahiru talderekin batera

**A. A. BERGARA**  
Iazko Pazko jaietan izan ziren katalanak Bergaran, eta, trukean, datorren egubakoitzean abiatuko dira Bergaratik 43 lagun; horien artean, Bergarako Erraldioen Konpartsako kideak –hau-

rrak eta helduak–, senideak, Elgoibarko eta Arrasateko gaiteroak eta Udaleko ordezkaria.

**Hamalau erraldoi talde**  
Bidaia azkarra izango da, domeka arratsaldean etxean egotea

da-eta asmoa, herriko San Martin jaietan erakustaldia egiteko.

Zapatu arratsaldean, kalejira egingo dute talde guztiak elkarrekin –Bergarakoek hamasei erraldoi eramango dituzte–, baina bestelako ekintzak ere egingo dituzte goizean: bisita kulturala eta harrera instituzionala, besteak beste.

Oporretako etenaren ostean, etzi ekingo diete entseguei konpartsako gazteenek; Zabalotegin elkartuko dira, 11:00etan, eta ateak zabalik dituzte.

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira uztaileko irabazleak!

#### SPC HEAVEN 10.1 TABLETA

Itziar Igartua Molua (Oñati)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Aitziber Askasibar Agirre (Elgeta)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Juan Ramon Balenciaga Errasti (Arrasate)

Aitziber Astola Elorza (Arrasate)

Esti Llodio Uribeetxebarria (Aretxabaleta)

#### ETXE AUNDI JATETXERAKO

#### BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Itziar Garcia Blazquez (Oñati)

#### LASA JATETXERAKO

#### BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Jokin Uribeetxeberria Ateka (Arrasate)

#### SANTA ANA JATETXERAKO

#### BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Xabier Etxeberria Agiriano (Oñati)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erakutsita, bina penara izango dituzte Arrikrutzeko txarteldagun. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK.** Auzo, Oñati 943 08 20 00. Oculogegia. Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzo delu hizordua egiteko) Herriaren dendak eta **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide bartzelarekin. Herriaren dendak. Arrasateko Etxeko Injermerkatuan duen dendak. **Lehen saio jasotzeko,** zati: GOIENAREN egoitzara. Saio jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** eskuratu edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitea emari behar da. GOIENA Oñatiara Libentziaduna 31. Arrasate 943 25 05 05. Oculogegia. Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### ERREKI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Oñatiaren atala eta hartu parte!  
PARTE HARTZEA: IRAILAREN 10ERA ARTE

943 25 05 05  klubak@goiena.eus

  KLUBA Jateakoa  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaituz 2019ko irailetik aurrera: 31€  
Deitu: 943 25 05 05 • klubak@goiena.eus

**goienakluba**  
Euzkara irabazle, denok irabazle!



# 15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*


## Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 23ra arte posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.

Orain arte jasotako argazki guztiak ikusi hemen: [Goiena.eus/bereziak/15-udako-argazkien-lehiaketa](http://Goiena.eus/bereziak/15-udako-argazkien-lehiaketa)



GORLA | Argazkia: Aitor Barrutia



LAGOS, ALGARVE | Argazkia: Aitziber Axpe



AMETSETAN (ESKOZIA, EDINBURGO) | Argazkia: Oihan Loiti Iraola



UDALATX, UGASTEGITIK | Argazkia: Maite Blain



KANTABRIA | Argazkia: Alfonso Donnay



NARSARSUAQ (GROENLANDIA) | Argazkia: Nerea Madariaga Mujika



COMAPEDROSA BIDEAN (ANDORRA) | Argazkia: Aitor Arana Arexolaleiba



ZURICH | Argazkia: Monika Frutos



ZARAUZEN | Argazkia: Eñaut Uriarte Palacio



BANGKOK | Argazkia: Saioa Ugarteburu

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante • Jatexea

**ARRASATE BIDAIAK**

BERGARA  
**EREIN  
DA  
JAN**

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

**104. ERRENTAN HARTU**  
**Arrasate edo Aretxabaleta.** Bertako bikotea, langileak, errentan hartzeko etxebizitza bila. Presazkoa da. Deitu 688 67 86 67 telefonora.

**Arrasate** Hiru logela eta igogailua daukan etxebizitza hartuko nuke errentan. Masakolan. 688 85 44 78

**Bergara** Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 500 euro arte ordain dezaket. 610 34 97 88

**Bergaran edo Arrasate** Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Telefonoa: 695 12 06 79

**Debagoiena** Errentan hartzeko baserri bila gabiltza, bailaran. Telefonoa: 665 71 19 71

**Baserri bila.** Bikote ofatiarra baserri bila. Errentan, konpontze alde

edo erosteko. Deitu base-  
 rriko teilatua erori aurre-  
 tik. 696 20 69 29

**105. ETXEAK OSATU**  
**Arrasate** San Andres auzoko etxebizitza bat osatzeko pertsona baten bila nabil. 627 13 26 14

2. GARAJEAK

**201. SALDU**  
**Arrasate.** Altamirazpin garaje itxia salgai. 17 metro koadro dauka eta ate automatikoa. Deitu 670 29 60 12 edo 697 41 66 24 zenbakietara.

3. LOKALAK

**303. ERRENTAN EMAN**  
**Bulegoak Oñatin.** Bulegoak ematen dira errentan Kale Zaharrean. Hilean 350 euro gastu guztiak barne. 652 75 60 52

**Kontsultarako gelak Arrasaten.** Arrasateko terapia zentro baten, kon-

tsultarako gelak ematen dira errentan. Hilabeteka, egunka edo orduka, beharren arabera. Kontakua: zentroat@gmail.com

4. LANA

**401. ESKAINTZAK**  
**Bergara** 5 urteko neskatila bat zaindu eta eskolara eramateko pertsona baten bila gabiltza. Nahiago nuke euskalduna izatea. Gidabaimena edukitzea ezinbestekoa da. Ordutegia: 7:45etik 9:15era 653 72 31 29

5. IRAKASKUNTZA

**501. JASO**  
**Bergara** 3. DBH ikasten duen mutil bati eskola partikularrak emango dizkion norbait behar dugu Deitu 695 70 58 33 telefonora.

**502. EMAN**  
**Ingelesa Bergaran** Maila guztiak. Baita ikastaro trinkoak edo Cambridge eta HEDEko azterketak prestatzeko ere. Talde txikietan edo banaka. Deitu 618 91 32 89 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

**801. SALDU**  
**Txabola salgai Leintz Gatzagan.** Egoera onean, tximiniarekin, ekipatuta eta inguruan lursail txiki

bat duena. Errepide generaletik metro gutxira, Arabako mugatik oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 29 29 38

**LEKeko HEZITZAILE LAN ESKAINTZA**

Leintz Eskola kirolak antolaten dituen eskola kiroleko saioak emateko hezitzaileak behar dira.

Perfila: 18 urtetik gorakoak, Heziketa Fisikoa zein Heziketa Berezia arloetako ikasketak burutzen edo burutuak.

Curriculumak bidali: lek@athlon.eus.

**BERGARA**

Higienista edo laguntzailea behar da hortz klinika batean, lehenbailehen hasteko.

Euskara jakitea eta inguruko izatea komeni da. Bidali curriculumak odontobergara@gmail.com helbidera edo deitu 618 95 90 17 telefonora.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



'HUMANITY AT MUSIC' KONTZERTUA  
 'Erreportajea' Astelehena, 21:00 eta 23:00



LEINTZ GATZAGAKO JAIEN LABURPENA  
 'Jaiak' Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 123 Hemen da Miru	09:00 Txanburiak 20
11:00 Elkarrizketa: Unai Iburriaga	09:30 Txanburiak 20	09:30 Kantari 21
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari 21	10:00 123 Hemen da Miru
12:30 Elkarrizketa: Iker Iribarria	10:30 123 Hemen da Miru	10:30 Txanburiak 20
13:00 Galdegazte: Amaia Albes	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Kantari 21
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Elkarrizketa: Bittor Arginzoniz	11:30 Lotsagabe
14:30 Albisteak	12:30 Galdegazte: Amaia Albes	12:00 Aretxabaletako jaiak
14:45 Harmailatik	13:00 Aretxabaletako jaiak	13:00 Debagoiena eraldatzen
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Debagoiena eraldatzen	13:30 Elkarrizketa: Iker Iribarria
16:15 Albisteak	14:30 Hemen Debagoiena	14:00 Asteko errepasoa
16:30 Kantari 20	15:30 Asteko errepasoa	14:30 Hemen Debagoiena
17:00 Albisteak	16:00 Lotsagabe: Stefany Sada	15:30 Galdegazte: Amaia Albes
17:15 Debagoiena eraldatzen	17:00 Aretxabaletako jaiak	16:00 Lotsagabe
17:45 Albisteak	18:00 Elkarrizketa: Iker Iribarria	16:30 Hileko errepasoa: abuztua
18:00 Hemen Debagoiena	18:30 Asteko errepasoa	17:30 Elkarrizketa: Bittor Arginzoniz
19:00 Galdegazte: Amaia Albes	19:00 Hemen Debagoiena	18:00 Debagoiena eraldatzen
19:30 Elkarrizketa: Unai Iburriaga	20:00 Hileko errepasoa: abuztua	18:30 Elkarrizketa: Iker Iribarria
20:00 Hemen Debagoiena	21:00 Elkarrizketa: Bittor Arginzoniz	19:00 Hemen Debagoiena
21:00 Debagoiena eraldatzen	21:30 Debagoiena eraldatzen	20:00 Lotsagabe
21:30 Elkarrizketa: Bittor Arginzoniz	22:00 Elkarrizketa: Iker Iribarria	20:30 Galdegazte: Amaia Albes
22:00 Hemen Debagoiena	22:30 Asteko errepasoa	21:00 Aretxabaletako jaiak
	23:00 Jaiak: Aretxabaletako jaiak	

EGUBAKOITZA, 6

**MIKEL ARGINZONIZI ELKARRIZKETA**

'Elkarrizketa'

21:30/23:30

ASTEGUNETAN

**HEMEN DEBAGOIENA: IKASTURTE BERRIA**

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aida meneko qr kodea.

ASTELEHENA, 9

**APOTZAGAKO GOITIBEHERRAK**

'Harmailatik'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 11

**LĒIMĀ BIKOTEA EZAGUTZEN**

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU DEBAGOIENERAKO

**KOMERTZIALA**

**ESKATZEN DA:**

- Euskaraz jakitea eta ondo idaztea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.
- Izaera dinamika eta harremanetarako gaitasuna izatea.
- Saltzaile lana gustuko izatea.
- Salmentan esperientzia izatea.

**KONTUAN HARTUKO DA:**

- Taldean lan egiten jakitea.

Curriculumak aurkezteko epea: **2019ko irailaren 12a**

Nora bidali: [ldzkartza@goiena.eus](mailto:ldzkartza@goiena.eus)

**goiena** KOMUNIKAZIO TALDEA

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK BEHAR DU DEBAGOIENERAKO

**ADMINISTRATZAILEA**

**ESKATZEN DA:**

- Enpresa alorreko unibertsitateko titulua izatea
- Euskaraz hitz egiten eta idazten jakitea
- Kontabilitatea, nominak, gizarte segurantzak... kudeatzen esperientzia izatea
- Gidabaimena izatea

**KONTUAN HARTUKO DA:**

- Harremanetarako gaitasuna
- Taldean lan egiteko gaitasuna
- Ingelesa menperatzea

Curriculumak aurkezteko epea: **2019ko irailaren 12a**

Nora bidali: [ldzkartza@goiena.eus](mailto:ldzkartza@goiena.eus)

**goiena** KOMUNIKAZIO TALDEA

**KOROSTI** INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**

- Zabaltegi, 80 m<sup>2</sup>, 2 logia, igogailu, berriketa, bitzara sartzea. 140.000€
- Martela, 67 m<sup>2</sup>, 2 logia, erakargarri berria, traxelak, igogailu. 125.000€
- Bola, 65 m<sup>2</sup>, traxelak, igogailu, bitzara sartzea. 145.000€ Gerojea aukeran
- Urtege, 92 m<sup>2</sup>, 3 logia, terraza 40m<sup>2</sup>, garajea barne, bitzara sartzea. 219.000€
- Mabatxegi, 96 m<sup>2</sup>, 4 logia, berriketa, igogailu. 149.500€ PREZIO JETTSERA
- Makelak, 86 m<sup>2</sup>, 2 logia, zahar berriketa, bitzara eta bitzara sartzea 145.000€
- Arrozaketa, 82 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelak, bitzara sartzea. 95.000€ PREZIO JETTSERA
- Martela, 80 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelak, igogailu. Bitzara sartzea. 110.000€
- Martela, 82 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelak, garajea, igogailu. 240.000€
- San Martin Agirre Plaza, 79 m<sup>2</sup>, 2 logia, igogailu, bitzara sartzea. 180.000€
- Ahualdegi Etxea, 260 m<sup>2</sup>, duplex, berria. Berriketa. 250.000€ PREZIO JETTSERA
- Urtege, 94 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelak eta garajea barne. Bitzara sartzea. 250.000€
- Mabatxegi, 102 m<sup>2</sup>, 4 logia, 2 berriketa, igogailu. 180.000€ PREZIO JETTSERA
- Zabaltegi, 45 m<sup>2</sup>, 3 logia, berriketa. Bitzara sartzea. 96.000€
- Zabaltegi, 120 m<sup>2</sup>, duplex, 4 logia, igogailu. 180.000€ PREZIO JETTSERA
- Bano, (Debagoienari) 59 m<sup>2</sup>, 3 logia, traxelak. 78.000€
- Makelak, 66 m<sup>2</sup>, 2 logia, berriketa, bitzara sartzea. 115.000€
- San Antonio, 69 m<sup>2</sup>, 2 logia, igogailu, traxelak, garajea. Bitzara sartzea 155.000€
- Arriaketa, 180 m<sup>2</sup> duplex, 4 logia, igogailu. Bitzara sartzea. 373.500€
- Bazter, 70 m<sup>2</sup>, 3 logia, egokitua, bitzara sartzea. Gerojea aukeran. 135.000€
- Makelak, 130 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu. Bitzara sartzea. 178.000€ PREZIO JETTSERA
- Fruktuak, 190 m<sup>2</sup>, 4 logia, traxelak, igogailu. 180.000€

**ANGIOZAR:**

- Etxebizitza 40 m<sup>2</sup>, 2 logia, erakargarri berria. Traxelak. 80.000 €
- Bazter 233 m<sup>2</sup>, lur zatiak eta bitzara sartzea. 250.000 €

**OSINTZU:**

- Ostio, 87 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu. 70.000€
- Ostio, 70 m<sup>2</sup>, 2 logia eta igogailu. 62.000€ JAKIERA ONA
- Ostio, 63 m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelak. Berriketa. Bito onak. 69.000€ PREZIO JETTSERA.

**UBERA:**

- Bazter eta 15 hektareako lurralde (jainak, zatiak) 340.000 € PREZIO JETTSERA

**ANTZUOLA:**

- Bano, 80 m<sup>2</sup>, 2 logia, traxelak, bitzara sartzea, igogailu. 125.000€ Egokitua.
- Etxebizitza, 90 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu, bitzara sartzea, garajea aukeran 140.000€
- Arriaketa, 71 m<sup>2</sup>, 3 logia, bitzara sartzea, traxelak. 76.000€ PREZIO JETTSERA
- Etxebizitza, 70 m<sup>2</sup>, 2 logia. Eza du alorrik behar. Alorrik barne. 125.000€
- Bazter zati, 65 m<sup>2</sup>, 2 logia. Eza du alorrik behar. 145.000€ Gerojea aukeran.
- Etxebizitza, 80 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu, egokitua. 113.000€ PREZIO JETTSERA

**ELGETA:**

- San Roke, Duplex 83 m<sup>2</sup>, orratz duen etxea, 3 logia, behelak sara. 219.000€
- Torrelaketa 77 m<sup>2</sup>, 3 logia. Barne. Oso onak.
- San Roke, 72 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu. 174.300€
- San Roke, Duplex 140 m<sup>2</sup>, 3 logia, igogailu, garajea 50 m<sup>2</sup> barne. 250.000€

## OROIGARRIA

**Silvi Carrancio Blanco**

Rafael Zamoraren alarguna



2018ko abuztuaren 24an hil zen, 82 urte zituela.

*Ama, amama, beti gure artean egongo zara.*

Aretxabaletan, 2019ko irailaren 6an.

## OROIGARRIA

**Esteban Barandiaran Fernandez de Jauregi**

Iker Barandiaran lankidearen aita



Gure bihozmina adierazten diegu familiakoei.

**arteman**

Aretxabaletan, 2019ko irailaren 6an.

## OROIGARRIA

**Jose Manuel Larrañaga Azkarate**

'Pitxitxi'



2019ko abuztuaren 25ean hil zen, 69 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara baina betiko izango zaitugu gure artean.*Karkabaleko bazkideak.  
Arrasaten, 2019ko irailaren 6an.

## OROIGARRIA

**Juan Cruz Beitia Etxebarria**

2019ko irailaren 4an hil zen, 69 urte zituela.

*San Migeletan buzkantza,  
Gabonetan intxaur-saltsa...  
Labiari geratzen dira  
zure irribarra eta patxada.*Labiako loben partez.  
Oñatin, 2019ko irailaren 6an.

## OROIGARRIA

**Juan Cruz Beitia Etxebarria**

2019ko irailaren 4an hil zen, 69 urte zituela.

*Elorduiko baserri lanetan  
pasatzen zenuen eguna,  
bertan erein duzu guztiongan  
bizi griña eta poztasuna.  
Urrun izan arren,  
beti izango dugu zure argitasuna.  
Bihotz-bihotzez eskertzen dugu  
jasotako maitasuna.*Elorduiko ezkon anai-arrebak eta ilobak.  
Oñatin, 2019ko irailaren 6an.

## OROIGARRIA

**Rafael Kortabarria Txintxurreta**

2019ko abuztuaren 31n hil zen, 72 urte zituela.

*Eskerrik asko, Rafa, Goienan kolaboratu  
eta laguntzeko prest egotearen beti.***goiena**

Oñatin, 2019ko irailaren 6an.

## ESKER ONA

**Begoña Aranzabal Mendizabal**

2019ko abuztuaren 2an hil zen, Donostian, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko irailaren 6an.

## URTEURRENA

**Jose Mari Garitano Alberdi**

Milagros Elorzaren alarguna



2018ko abuztuaren 29an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 8an,  
11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean  
Antzuolan, 2019ko irailaren 6an.

## URTEURRENA

**Cristobal Zabaleta Urcelay**

2018ko irailaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 8an,  
